

LEKUAN LEKUKO

anboto

OSASUNGINTZA

Pentsiodunen mugimenduak deituta, Berrizen osasun publikoaren alde kalera irtengo dira gaur / 6

BERDINTASUNA

Lilakrosak morez jantziko ditu Durangoko kaleak domekan

Lilakrosak Durangoko kaleak hartuko ditu martxoaren 15ean. Berdintasunaren aldeko proba Ezkurdin hasiko da, 12:00etan / 12



KORRIKA

ANBOTOk zozketa antolatu du, Korrikako lekukoa Anbotokideek eraman dezaten / 4



DURANGO

Kuir Eztandak 'Ekuirnokzioa' egingo du Durangon, udalerriko LGTB memoria ardatz / 4



Askoren arteko elkarlana,

Epifanio Osoro

ahantzuratik ateratzeko

2022an, gerra zibileko hainbat presoren gorpuzkiak agertu ziren Berriozarko kanposantuan, eta euretariko batzuk Epifanio Osoro anarkista durangarrarenak direla frogatu zuten iazko urte amaieran. Ikerlari durangarren lana giltzarri izan da aurkikuntza horretan. / 2-3

Epifanio Osororen senideak (ezkerrean), Barreña familiako kideak (erdian) eta Jimi Jimenez ikerlaria (eskuman).



SCHMIDT

SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

Martxoaren 2tik 30era

%20KO DESKONTUA

sukalde eta altzarietan



Juan Osoro, Epifanio Osororen iloba, eta haren birbiloba Endika Osoro.

MEMORIA HISTORIKOA

"Ez genuen osaba Epifanioren istorioa ezagutzen: desagertu egin zela esan ziguten"

Aranzadik Berriozarko hilerrian topatu zuen Epifanio Osoro anarkista durangarra

Ekaitz Herrera MEMORIA

Bazuen osaba Epifanioren berri. Bazekien Durangon jaio zena, aitaren anaietariko bat izan zena. Baina ez zekien osaba talde anarkista bateko kide izan zela, frankistak altxatu eta gutxira erail zutela, ezta haren gorpuzkiak urte luzez Berriozarko hilerrian (Nafarroa) lurperatuta egon zirela ere. Juan Osoro basauriarrak irratia entzuten zegoela jakin zuen osabaren gorabeheren berri, eta Jimi Jimenez ikerlari durangarra beragaz hartu-emanetan ipini zen gerora. Izan ere, 2022ko martxoan, Nafarroako Gobernuko Memoriaren Institutuak desobiraketak egin zituen Berriozarko kanposantuan. Gerra zibileko hainbat gorpu topatu zuten han. Eta Jimi Jimenezek esku hartutako ikerketari esker, eta Juan Osorok emandako DNA laginari esker, 2025eko azaroan gorpuetariko bat durangar batena zela frogatu zuten: Epifanio Osoro Ikobaltzetarena. ANBOTO Juan eta Endika Osoro aita-semeekin batu da, Epifanio Osororen ilobagaz eta

birbilogagaz, hurrenez hurren, Jimi Jimenez ikerlariak eta Andoni Barreña Durango 1936 elkarteko kideak lagunduta.

"Gure aita eta bere senideak Artekaleko 26. atarian jaio ziren, hirugarren solairuan. Lau neba-arreba izan ziren: Juan gure aita, Rosa, Juana eta Epifanio. Aitaren familia durangarra izan arren, senideak Bilbora joan ziren gerora. Gaur egun, gu Basaurin bizi gara", azaldu du Juan Osorok. "Etxean ez zen ezer komentatzen. Ez genuen osaba Epifanioren istorioa ezagutzen. Desagertu egin zela, hori baino ez zen esaten. Baina, halako batean, orain hamabost bat urte edo, irratia entzuten nenbilela izan nuen bere berri", gaineratu du.

Espainiako Bigarren Errepublikaren garaian, talde anarkista bat egon zen Durangon, eta Epifanio Osoro bertako kide izan zen. 1930eko hamarkada bueltan sabotajeak egin eta eskuorriak banatzen zituzten", testuinguruan kokatu du Jimi Jimenezek talde anarkista. "Eta horregaitik guztiagaitik, Epifanio eta bere taldea polizia-

jo-puntuan zegoen beti", gaineratu du Andoni Barreñak. Gatazka giro hori oraindino eta gehiago sakondu zen erreprezioaren kontrako mobilizazioetariko batean, Durangoko udaltzainburua hil zutenean. "Gure familiako kideak lekukoen artean zeuden, eta, testifikatu zutenez, tirokatzailea ez zen Durangoko inor izan", argitu du Barreñak. Baina, gertakari hark ezegonkortasuna handitu zuela eta, Durangoko anarkistek herritik alde egin behar izan zuten.

"Hortik aurrera, talde anarkistako kide bakoitzak bizimodua topatu behar izan zuen, eta badirudi Osorok Valladolid, Aranda de Duero eta Burgos inguruko talde anarkistekin kontaktatu zuela", azaldu du Jimenezek. "1935era arte delitu txikiak egin

"Durangon talde anarkista bat zegoen eta Epifanio bertako kide izan zen"

zituen, harik eta 1935eko martxoaren lehen bera eta beste lagun bi Aranda de Duero banku batean lapurreta egiten ahalegindu ziren arte. Ez zen eurek pentsatu zuten moduan irten, eta ihesean zihoazela polizia egun hartan bertan atxilotu zuen durangarra. Baimenik barik armak edukitzea, lapurretan egitea eta pertsona bat bahitzea leporatu zioten. Izan ere, taxi gidari bat bahitu zuten, Valladolidetik Aranda de Duero banketxera joan ahal izateko. Gidaria ibilgailutik kanporatu eta lotuta utzi zuten ihi artean. Bahituak, baina, askatzea lortu eta salaketa ipini zuen. Epaitu eta gero, Osoro kartzelaratu egin zuten", gaineratu du. Durangarrak 21 urte zituen atxilotu zutenean, eta 11 urte 14 hilabete eta 22 eguneko kartzela zigorra jaso zuen. Aranda de Duero kartzelan egon zen lehenengo, eta Valladolidekoan, Leongo Sahagún herrian, Alcalá de Henareseko kartzelan, Burgosen, Guadalajaran eta Iruñean gero.

Osoro 1936ko ekainaren 24an sartu zuten Ezkaba mendiko kartzelan, San Kristobalgotzalekuan. Han eman zituen bere azken egunak. Hilabete batzuk lehenagoko amnistia legea tarteko, armak edukitzetik kargugabetu zuten, baina ez intimidazio bidezko lapurreta egitetik. Hori nahikoa ez, eta kartzelara sartu eta gutxira altxamendu frankista gertatu zen. "Eta ikusita kondenatuta zegoela eta giroa errepublikatik militarren kontrolpera igarotzen zebilela, Osorok ihes egitea baino ez zuen irtenbide. Ihes egiteko konplota antolatzea egotzi zieten berari eta beste 20 presori, hain zuzen ere", azaldu du Jimenezek. Dokumentazio historikoak jasotzen duenez, "kartzela zaindarien hil zuten Osoro, ihes egiten ahalegintzen zebilela".

22 urte zituen eta Aranzadi zientzia elkartek topatu zuen bere gorpua, erail zutenetik ia 90 urtera, Berriozarko hilerriko hobi komun batean, kartzelako beste 16 presogaz batera. Bakoitzak tiro bat zeukan buruan. Azkenik, Juan Osorok 2025eko udazkenean egindako DNA probari esker, hilda-koetariko bat osaba Epifanio zela ondorioztatu zuten. Orain, familia zain dago Nafarroako Gobernuaren eskutik gorpuzkiak jasotzeko. Eta behin osaba desagertua berreskuratuta, zikloa zarratzeko prest.

Anarkista durangarra topatzeko gakoak



Jimi Jimenez

Jimi Jimenez ikerlari durangarrak zeresan handia izan du ikerketan. "Oso prozesu bizkorra" izan dela dio. "Iaz kontaktatu genuen Juanegaz, irailean DNA proba egin genuen, eta azaroan gorpuzkiak Epifaniorenak zirela ondorioztatu".



Barreñatarrek bidelagun

Andoni Barreñak eta bere familiak testigantza historiko ugari jaso dute: "Gure aitaren familia Kalebarrian bizi zen, eta gure osaba Nicolas, bederatzi seme-alabaren artean zaharrena, Epifanioren laguna zen, adinkideak ziren eta. Osaba-izebek sarritan aipatzen zuten Epifanio".



NAFARROAKO GOBERNUA

Aranzadiren lana

2022ko martxoan, Aranzadik desobiratzeak egin zituen Berriozarko hilerrian (Nafarroa). 17 gorpu aurkitu zituen, buruan tiro banagaz. Haien artean zegoen Osoro. Nafarroako Gobernuak familiari bueltatuko dizkio durangarraren gorpuzkiak.



Epifanio Osoro Durangoko anarkistaren memoria berreskuratzen

Kartzela batetik bestera

11 urte, 14 hilabete eta 22 eguneko kartzela zigorra jaso zuen, eta kartzelarik kartzela lekualdatu zuten etengabe: Aranda de Duero, Valladolid, Sahagun (León), Alcalá de Henares, Burgos, Guadalajara eta Iruñea.

Desobiraketak

Aranzadik Osororen eta garaiko
beste hainbat presoren
gorpuzkiak topatu zituen
Berriozarko hilerrian, 2022ko
martxoan, hobi komun bitan.



Osoro udalerriko talde anarkistako kide izan zen 1930eko hamarkadaren bueltan. Honako hauek dira gako nagusiak bera ezaqutzeko:

1914 Artekaleko
26. atariko semea

Osoro Artekaleko 26. atariko
hirugarren solairuan jaio zen.
Lau neba-arreben artean
bigarrena izan zen.

1935eko martxoaren 1eko lapurretak

Aranda de Dueroko banketxe batean lapurretan egitea egotzita atxilotu zuten beste kide bategaz batera. Halaber, taxi gidari bat bahitzea egotzi zioten.



1936ko ekainaren 24a

Egun horretan Ezkaban kartzelaratu zuten, San Kristobalgo gotorlekuan.

1936ko azaroaren 1a

Gotorlekuan bertan hil zuten beste 16 presogaz batera, "kartzelatik ihes egiten ahalegintzeagaitik".

Juan Osoro iobaren DNA probari eskerrak, osabaren gorpuzkiak identifikatu eta baieztatu zituzten 2025eko azaroan.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP, E.

"Norbaitek zerbait nahi duenean, ahaleginduz gero lor dezake"

Yohan Toro Giraldo

Fabrikazio Mekanikoko
Produkzioaren Programazioa
Goi Mailako Heziketa Zikloa (GMHZ)

Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programaziorako goi-mailako zikloari dagokion ikasketak amaitzen ari zara. Zergatik aukeratu zenuen MGEP?

Duela 8 urte Kolonbiatik nire sortzeritik, etorri nintzen Euskadira bizitzera. Hasieran Gasteizko logistika enpresa batean aritu nintzen lanean, baina Covid delakoren ondoren sortu zen krisiaren ondorioz, lare galdu nuen. Langabezia nengoela, lehen kontakia izan nuen MGEPekin, Lanbidek sustaturako mekanizazio-ikastaro bat egite nuenen. Kurso honetan hainbat gauza ikusi nituen: Mekanizazioaren esparrua gustatzen zitzaizkida, ikasten eraso sentitzen ari nintzela, eta mekanizazioa lan-aukera handiak eskaintzen zituen arloa zela. Beraz, Eskolako hainbat irakasleekin hitz egin ondoren, goi-mailako heziketa-zikloa bera ematea erabaki nuen.

Nolako izan da ikasgeletara itzultzea?

Hasieran gogorra egin zitzaidan, 20 urte ziren nire ikasle etapa amaitu nuela eta kostu egin zait ohitura eta errotina berrietara egokitzea. Niretzat eronka handia izan da, baina ikusitako egin diot aume. Asko salatu nait eta ikasgai guztiak kalifikazio onekin gaindu ahal izan ditut. Oso pozik nago. Irakasle-taldearen babesa

TALENTU PROFESIONALA

eskolatik - industriara

sentitu dut une oro, tratu hurbila eta eskeragaria izan dute beti, eta horiek laguntza handia ekarri dit. Bi urtez ikasten egon ondoren, konuratu nait zerbait nahi duzunean, ahalgintzen bazara, lor dezakezula.

Zer moduz DUAL programa intentsiboan? Erara egin zaitzu enpresako lana eta gelako eskola-ordua uztartzea?

Alderdik hori ere eronka beldi bait izan da, hori guztia nire familia-bizitzarekin uztartu behar izan baitut. DUAL intentsiboak antolatuta behar du batez ere. Goizetan 8:00etatik 13:00etara etortzen nait Eskolara. Gero Copreci-ra joaten nait lanera, beste hiru orduz. Hala ere, DUAL programak eskaintzen dituen abantailak oso nabarmenak dira. Ikasgelako ikaskuntza enpresa-erperiencia erreal batekin osatzen aukera ematen digu. Gainera uste dut prestaburua nagoela nire etorkizun profesionalari begira.

Zer asmo dituzu etorkizunari begira?

Lehenengo gauza heziketa-zikloa amaitzea izango litzateke. Uste dut honek aukera bat errango dicala nire enplegua finkatzeko, ahal izanezkiego Copreci-n, non DUAL programa egiten ari naizen, eta ezin bada beste enpresa batean. Hau da nire lehentasun nagusia une honetan.

ATE IREKIAK

Martxoak 28
Maiatzak 9

11:00etan

Eman
izena!

MGEP:
664 298 683

"Durangoko kuir memoriaren ibilbidea egingo dugu, nondik gatozen jabetzeko"

IKER GARATE ETA ELENA OLAVE KUIR EZTANDAKO KIDEAK

Ekaitz Herrera DURANGO

Zapatuan, Kuir Eztandak *Ekuirokzioa* ospatuko du Durangoko kaleetan eta gaztetxean. LGTB komunitatea saretzeko eguna izango da. Aurtengo ezaugarrietariko bat memoria historikoa izango da.

Ekuirokzioarako gertu?

Iker Garate: Urduri samar gaude, aurtengoa indartsu dator eta. Lan handia egin dugu eta gogotsu gaude zapatua ailegatzeko.

Elena Olave: Honako hau bigarren Ekuirokzioa izango da. Iaz Iurretan egin genuen, eta, lehenengoa izan zenez, sorpresa puntu hori zegoen. Durangaldeko eta eskualdetik kanpoko jende asko etorri zen. Aurten Durangon egingo dugu. Jendea animatzea itxaroten dugu.

Memoria historikoak pisu nabarmena du aurtengo egitarauan.

E.O.: Izan ere, horixe izango da aurtengo Ekuirokzioaren ardatza. Iaz, elkarren arteko aliantzetan ipini genuen fokua, eta aurten memoria historikoan. Beharrezkotzat jotzen dugulako zelan sortu ginen eta nondik gatozen aztertzea. Hori dela eta, Durangoko kuir memoriaren ibilbidea egingo dugu.



Iker Garate eta Elena Olave.

I.G.: Durangoko kuir memoriaren ibilbidea hirietako ibilaldi turistikoan antzekoa izango da. Zirkuitu bat egingo dugu herriko kaleetan, eta geldialdiak egingo ditugu LGTB mugimenduarentzat inportanteak diren lekuetan. Gainera, ibilaldi hori Durangoko LGTB herritar historikoen eskutik egingo dugu, eurak arduratu ko dira-eta azalpenak emateaz. Besteak beste, 90eko hamarkadako EHGAMEko kideek, Bilgune Feministako kideek, Jon Petrandak eta bertsolari batzuek parte hartuko dute.

E.O.: Zisak eta heterosexualak direnentzat ere interesgarria izango da ibilbidea, herriko LGTB testigantzak eta historia ezagutuko dituztelako.

Ekuirokzioko bigarren ekintzak ere memoria du oinarri, baina, kasu horretan, Getxoko adineko LGTB herritarrena.

I.G.: Belaunaldien arteko zeozer egin gura genuen, eta ikusi genuen Julen Nafarrete kazetariak eta Ines Bermejo artistak *Non daude Getxoko LGTBQ+ nagusiak?* liburua eta erakusketa egin zutela. Pentsatu genuen

interesgarria izan zitekeela liburuaren sortzaileak ekartzea eta proiektua ezagutzea.

E.O.: Ispilu bat dira, zelanbait. Berbaldi bat egin zuten orain lau urte eta hantxe ezagutu genituen. Eta, denboragaz, Durango-Getxo ardatza sortu dugu. Julen eta Ines oso prest agertu dira proiektuaz berba egiteko eta liburua aurkezteko.

Dena dela, jaia egiteko astia ere izango duzue.

E.O.: Bazkaria egingo dugu lehenengo, eta gero Hirukia Trivial jolasa, geurera moldatuta. Gure kulturaren eta iruditeriaren inguruko jolasa izango da eta probak egongo dira. Maritxuena nor den erabakitzeke jolasa izan daiteke, zelanbait esateko.

Eta, jakina, parrandarako aitzakia ere izango da.

I.G.: Arratsaldean karropoteoa egingo dugu Durangoko kaleetan, eta gauean Mokor Okerren gaua gaztetxean: DJ Kene, MJPQ eta DJ Totozer ibiliko dira giroa berotzen. A! Eta sorpresak ere egongo dira!

Zein jantzi edo dress code behar da Ekuirokzioarako?

E.O.: Etorri eroso jantzita. Arnesak erabili daitezke, jantzi gardenak ere bai. Ekarri *animal print* arropa, sare itxurako jantziak, arropa distiratsuak, ileordeak. Zeozer *garage-underground* tekno-futurista egin dezakegu. Imajinatzen? Baina ez ekarri purpurinarik, gero garbitzea asko kostatzen da eta.

Tokiko saltokirik onenak bozkatu daitezke 'Oso Pro' kanpainen

J.D. DURANGO

Bizkaiko Aldundiak *Bizkaiko merkataritza: Oso Pro* izeneko kanpaina abiatu du, tokiko saltokien balioa nabarmentzeko helburuz. Kanpaina horri dagokion informazio gune bat zazpi herri-tatik igaroko da, tartean Durangotik. Hain zuzen ere, gaur bertan Ezkurdi plazan ipiniko dute.

Postu horretan, herritarrek 'oso pro'-tzat jotzen dituzten Bizkaiko saltokiak aukeratu ahal izango dituzte. Gehienez hiru saltoki aukeratu daitezke, irizpide hauek kontuan hartuta: arreta emateko profesionaltasuna, bezeroekiko gertutasuna, berrizteko gaitasuna, eta inguruneagazko konpromisoa.

Sariak parte hartzaileentzat

Parte hartzea bultzatzeko, izendapena zuzen betetzen duten pertsona guztien artean 300 euroko 15 sari zozkatuko dituzte, Bizkaiko saltoki txikiengan gastatzeko. Izendapenik gehien hartzen duten saltokien artean epaimahai profesional batek kanpainako balioak ondoen islatzen dituztenak hautatuko ditu, eta ekimenaren hurrengo fasera igaroko dira. Bihar Mungian eta Gernikan ipiniko dute postua.

Lekukoa eraman gura duzu ANBOTOren kilometroan?



E.H. DURANGALDEA

Aurtengo Korrikan, lantaldeko kideek barik Anbotokideek eramango dute ANBOTOren lekukoa, Berbarogaz batera. Testigua eraman gura dutenek zozketa batean parte hartu beharko dute. Horretarako, nahikoa da *anboto.org* atarira sartu, zozketen atalera jo eta Anbotokide zenbakia-

gaz batera zozketan parte hartzea. Korrika Atharratetik irtengo da, martxoaren 19an, eta Euskal Herri osoa zeharkatu eta gero Bilbora helduko da, hilaren 29an. Durangaldetik bezperan igaroko da, goizaldean, martxoaren 28tik 29rako gauean. *Euskara gara* izango da aurtengo leloa, eta Erri-gora omendua.

Abesti feministen lehiaketan botoa emateko epea, zabalik

J.D. DURANGO

11 abesti ailegatu dira Durangoko abesti feministen lehiaketako finalera: *Mirar a otro lado*, *Es-natu*, *Sekretua*, *Only a Prey*, *Emakumeon martxa*, *Marea morea*, *La vida soy yo*, *La vida es ella*, *As I am*, *Bloom eta Denona da*. Hemendik eta martxoaren 27ra arte, durangarrek abestiak entzuteko eta gogokoenaren aldeko botoa emateko aukera izango dute *partehartu.durango.eus* atarian. Behin bozketa amaituta, kantak zuzenean abesteko txanda ailegatuko zaie sortzaileei. Ekitaldia martxoaren 28an egingo dute, 19:00etan, Plateruenena Kultur Aterpean. Bertan jakinaraziko dituzte abesti sarituak.

Durangoko Udala ur hoditeria berrizten dabil San Inazio auzoan

J.D. DURANGO

Udal brigadak San Inazio auzoan edateko uraren lurpeko instalazioak berrizten jarraitzen du, udalak ohar batean zehaztu duenez. Izan ere, orain zenbait hilabete matxurak antzeman zituzten ur hoditerian. "Fibrozementuzko hodi horiek 50 urte dituzte, eta, hondatu egin direnez, ur horniduraren eraginkortasuna arriskuan ipintzen zuten ihesak sortzen ziren", esan du.

Hasteko, Agirre Lehendakaria kalean obrak egin zituzten, San Inazioko 8. blokearen inguruan. Otsailaren 23tik hona lan berdina egiten dabilta San Inazioko 6 eta 7 blokeetan, eta parkeko iturriko ur hargunea ere berriztuko dute.

"Erdi Aroan garagardoa sorginkeriagaz lotu eta emakumeak baztertu egin zituzten"

MAIDER URIBE LASUEN IRAKASLEA ETA GARAGARDOAREN HISTORIAN ADITUA

J.D. DURANGO

Durangoko Napar txokoan garagardo dastatzea antolatu dute martxoaren 26rako. Leku guztiak bete dira. Maider Uribek gidatuko du dastatzea eta Zigor Iturrieta sukaldariak pintxoak egingo ditu. Ogibidez teknologia irakaslea da Eibarko institutuan, baina garagardoaren historia aspalditik gustatzen zaio.

Zelakoa izango da dastatzea?

Bost garagardo egongo dira. Zerbeza arinekin hasi eta *stout* estiloko fuerteategaz amaituko dugu. Garagardoaren historiako kontuak azalduko ditut, baina emakumeen ikuspegitik.

Nondik datorkizu mundu honegazko interesa?

Gogoan dut gurasoekin Alemaniako Municheko Hoffrau zerbeza konpainia ezaguna bisitatu genuen eguna. Harrituta geratu nintzen giroagaz eta historiagaz.



Maider Uribe.

Gure semeak ere eraman ditut hara; iaz izan ginen! Orain urte batzuk jakin nuen garagardo epaile izan daitekeela, eta hori ateratzen ahalegintzen nabil orain. Mundu horretan Mar eza gutu nuen, La Txika de la Cer-

veza izeneko zerbeza ekoizten duen bilbotarra, eta haren bitartez jakin nuen emakumeek garagardoaren munduan izan duten garrantzia. Orduan hasi nintzen ikertzen. Esaterako, emakume batek Palentzian egiten duen garagardoa probatuko dugu dastatzean. Palentina Libre deitzen da eta etiketa asko gustatzen zait: emakume bat, bertako janzeragaz, molotov koktel bat jaurtitzen ageri da. Ingelesekin hiria hartu behar zuten sasoiak, emakumeek paper garrantzitsua izan zuten hori eragozteko, eta hori irudikatzen du.

Emakumeak garagardo ekoizpenean izandako garrantzia isildua izan da?

Ez da kontatu urte askoan. Erdi Aroa mugarriz izan zen, erlijioa eta inkisizioa tartean sartu zirenean. Garagardoa sorginkeriagaz lotu zuten eta emakumeak rol horretatik baztertu behar

zirela erabaki zen. Publikotasuna eta baliabide ekonomikoa kendu zizkieten.

Eta Erdi Aroaren aurretik?

Emakumeek Mesopotamiaren garaitik egin dute garagardoa. Ekoizten zuten garagardoak estatus handia zuen: elikagaia zen eta baita bakea ematen zuen edari bat ere. Arima lasaitzen zuen. Orduko jendeak eskerrak ematen zizkion Jainkosari garagardoaren errezeta ematearren.

Garai hartako istorio bat kontatuko didazu?

Hona Egiptoko Jainkoei buruzko bat: Ra jainko egipziarrak uste zuen gizakia bere kontra zebilela. Bere alaba emakume bihurtu, eta Sekhmet izenagaz Lurrera bidali zuen gizakiei kontu hartzeko. Sekhmeten odol goseak ia akabatu egin zuen giza espeziea. Rak, alaba geldiarazteko, garagardoa gorritik tindatu zuen eta huraxe eman zion edateko. Hiru egunean edan zuen garagardo hori, odola zelakoan. Azkenean, Sekhmetek halako mozkorra harrapatu zuen ze, berriro Jainkosa itxura hartu zuela emakume izateari utzita. Horri eskerrak, gizakia anikilaziotik libratu zen.

Andra Mariren barrualdea ezagutara, bisita gidatuetan

Durangoko Udalak, Turismo Bulegoaren bitartez, doako bisita gidatuen programa abiatu du aurten ere, Gerediaga Elkar-teagaz batera. Uribarriko Andra Maria Basilikaren barrualdea ere bisitatu daitekeela da aurtengo programaren pizgarri nagusietariko bat. Horrela, parte hartzaileek basilikako kanpoaldea ez ezik, sakristia, Elizaren Museoa, korua, organoa eta Uribarriko Ama Birjinaren ganbera ezagutzeko aukera izango dute.

Udalak ohar batean jakinarazi duenez, aurtengo bisita gidatuen programan beste hainbat ibilbide dago: Alde Zaharrean zeharreko ibilbidea, eskultura publiko ardatz duena, Durangoren hiri-bilakaera aztertzen duena, eta Euskal Herriko heriotzagaz lotutako erritu eta ohituretan sakontzen duena.

Bisitak apiriletik irailera izango dira. Daten informazio gehiago turismodurango.net atarian daude.

Udalak amaitu ditu Durangoko hainbat kaletan egindako asfaltatze lanak

J.D. DURANGO

Amaitu dira Durangaldeko hainbat kale asfaltatzeko egin dituzten lanak. Lanek hilabete bi iraun dute eta 308.837 euroko aurrekontua izan dute, udalak ohar batean informatu duenez.

Lan nagusiak Intxaurren, Laubidetan eta Aliendalde industrialdean egin dituzte, baina beste leku batzuetan ere egin

dituzte, hala nola Gallanda, Landako eta Frai Juan Zumarraga kaleetan. Guztira, 7.200 metro koadro asfaltatu dituzte, udaleko datuen arabera. Lan horiek eginda, Durangoko "funtsezko gunetako bide azpiegitura nabarmen hobetu" dela adierazi du udalak.

Beste lan mota batzuk ere egin dituzte. Esaterako, hainbat le-

kutan oinezkoen pasabide jasoen malda murriztu dute, emergentziazko ibilgailuen eta bizikleten joan-etorria errazteko eta irisgarritasuna bermatzeko. Bestalde, neurriak hartu dituzte egoitza eta eskola eremuetako trafikoa abiadura moteltzeko eta bideko segurtasuna indartzeko.

Azkenik, datozen hiletan asfaltatze lan gehiago egingo dutela aurreratu dute, "bide azpiegitura hobetzen jarraitzeko eta herriarrei ingurune seguruagoa eta irisgarriagoa eskaintzeko".



Malda murriztu dioten zebra-bide baten irudi bat. DURANGOKO UDALA



Olaburu 3 - IURRETA

Tel.: 94 428 80 00

www.oroibioigoitiabhi.hezkuntza.net

Bulego ordutegia: 9:00etatik -14:00etara

JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoko modalitateak D eremuan

- Zientzia eta teknologia.
- Giza eta Gizarte Zientziak.

- Euskarazko doako kalitatezko hezkuntza.
- Orientazio akademiko-profesionala.
- Familia, ikasle eta langile guztien partaidetza.
- Teknologia berrien aldeko apustua.
- Psikologia zerbitzua.

ATE
IREKIAK
MARTXOAK 23
17:00



"Orain urte batzuk geneukana berreskuratzea baino ez dugu eskatzen"

Gaur osasungintza publikoaren aldeko manifestazioa egingo dute Berrizen, 18:30ean

Aritz Maldonado BERRIZ

Berrizen ia urte bi daramatzate Lehen Arretaren egoera kaskarra eta mediku falta salatzen. Herriko anbulatorioan hiru mediku egoteko konpromisoa betetzeko eskatzen diote Osakidetza, baina aldarrikapena harago doa: "osasun sistema publikoaren desegite estrukturala" eta "pazienteak esparru pribatura bultzatzen dituen estrategia" salatzen dituzte, eta, mobilizazioetan beste maila bat igotzeko, manifestaziora deitu dute bariku honetarako, hilak 13. ANBOTO eurekin elkartu da astelehenean egindako elkarretaratzean; beste astelehen batez, 100 bat lagun batu ziren. Ondoren, barikurako deialdirako kartelak itsatsi zituzten Berriztik zehar.

Manifestaziora deitu duzue barikurako.

Mari Angeles Elorriaga: Urte bi daramatzagu protestan, azken finean, denok dugulako etxean edo gertu kasuren bat. Osasuna oso garrantzitsua da eta zentroa orain ez dabil erantzuten behar den moduan. Ia derrigorrean pribatura jotzera behartzen zaituzte.



M. A. Elorriaga, T. Garcia, V. Esteban, I. Otxandategi, Jon Barcena eta M. Arrizabalaga.

Tomas Garcia: Orain urtebete-edo manifestazio jendetsu bat egin genuen, batere medikurik barik geratu ginelako. 100 bat berriztarrek trena hartu eta Galdakaora joan ginen, Osakidetza zuzendariarengana, kexatzera; mila sinadura baino gehiago ere batu genituen. Orain, teorian, hiru mediku ditugu Berrizko anbulatorioan, baina

erralitatea bestelakoa da: mediku horietariko bik lanaldi murriztua dute, eta baja edo oporrak hartuz gero, ez dituzte ordezkatzen; egun batzuetan mediku bakarra dugu, edo batere ez. Lehen Arreta suntsituta dago. Sarritan, erizainek egiten dituzte baheketa, beste batzuetan administrariari kontatu behar diozu zure bizitza, leihatilan.

Ez dugu ilargia eskatzen, orain urte batzuk geneukana berreskuratzea baino.

Arazoaren muina ez dela mediku falta puntual bat nabarmendu duzue.

Valen Esteban: Hala da. Ez da logikoa osasun zentrorra joan eta familiako medikuak handik hamar egunerako ematea hitzordua. Hori adibide bat baino ez da. Herriko medikuen egoerak erakusten du zerbitzu osoa zelan dagoen. Ez dago finkotasunik, eta espezialistak are okerrago dabilta: hitzorduak eta probak atzeratu egiten dira etengabe. Hasieran txikia den gaitz bat okertu egiten da hileetan zehar, eta garaiz osatu daitekeena atzerazín bihurtu daiteke horrela.

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan osasunean gastatzen den diru totalaren %30 medikuntza pribatura bideratzen da dagoneko. Gobernuak badaki familiako mediku egonkor bat izateak gaixotasun kronikoen konplikazioen %90 ekiditen duena. Dena dela, Margaret Thatcherrek Ingalaterran ezarri zituen politika berdinekin jarraitzen dute: sistema publikoa desegin, aberatsek arreta hobia izan dezaten.

Berriztarrak kalera irten zarete hainbat bider.

Maite Arrizabalaga: Hau guzti hau ez da kasualitatea. Politika kapitalista liberal batzuen ondorioa da. Aznarren gobernuaren garaian publikoko eta pribatuko joan-etorriak ahalbidetu ziren, osasuna elite batentzako bakarrik

uzteko bidea egin zuten, baina gu ez gaituzte engainatuko.

V. E.: Ez dugu gura Berriz erreferentzia bat izatea borroka honetan. Durangaldeko herri guztiek gure moduan osasun publikoaren alde borroka egitea da gure helburua, arazo hau ez delako berriztarrona bakarrik, herri guztiena da.

T. G.: Osasun langileak babesten ditugula gehitu gura nuke. Baldintza duinetan lan egin behar dute, ondo ordainduta. Oraindino gehiago esango dut: harro egon behar lukete sistema publikoan lan egiteaz.

V. E.: Lotsagarria da. Azken bost Osasun sailburuak sektore publikotik pribatura igaro dira, kliniketara edo aholkularitza zerbitzuak eskaintzera. Hau da, osasun sistema paralelo bat sortzen dabilta. Nik ez diot gaur egun hainbeste aipatzen den publiko-pribatu kolaborazioa ez denik egokia, beharbada Ontziora salbatzeko. Baina, osasungitzaren kasuan, privatizazioagaz suntsitzen dabiltzala esango nuke. Oinarritzko zerbitzuek publikoak izan behar dute, eta kontrol publikoa izan behar dute. Begira zelan dagoen Madril. Edo hain urrun joan barik, begira zelako arazoak dituzten Durangoko erresidentzietan; kudeaketa pribatua dute eta Aldundiari iruzur egiten dabilta. Eta Aldundiak ez du ahaleginik ere egiten hori kontrolatzeko. Baina herritarrak argiak gara eta ez gaituzte engainatuko.

STEAM arloan lanean dabilzan emakumeak omendu dituzte

J. G. ZORNOTZA

Marixelarre sarien bosgarren edizioan, Zornotzako Udalak STEAM arloan lanean dabilzan emakumeak omendu zituen. Zientzia, teknologia, ingeniari-tza, arte, matematika eta osasun arloan lan egiten duten emakumei egin zieten aitortza, Zubiondo parkean egindako ekitaldian. Unibertsitateetan, ikerketa zentroetan, teknologia enpresetan, ikastetxeetan zein osasun arloko zerbitzuetan dabilzan emakumeak omendu zituzten "euren ibilbide profesionalaren eta herriari egiten dioten ekarpenaren garrantzia nabarmenduta", udalak oharrean azaldu zuenez.

Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak emakume hauen "lana eta konpromisoa" azpimarratu zituen, zientziaren eta teknologiaren arloan egiten duten ekarpena ez ezik, herriarentzat duten balioa ere azpimarratuta. "Gaur aitortzen ditugun emakume hauek erakusten digute talentua eta prestakuntza etxean bertan ditugula. Zientzia eta teknologia ez dira urruneko errealitateak; gure udalerrian ere badira ikeritzen, irakasten eta berritzen dabilzan emakumeak. Zuen ibilbideak erreferente dira gure neska eta gazteentzat, eta etorkizun berdinzaleago baterako bidea zabaltzen jarraitzen dute", adierazi zuen alkateak domeka-



Sariketako argazki bat. ZORNOTZAKO UDALA

ko ekitaldian. Aitortza ekitaldiak, bestalde, mezu argi bat helarazi gura zuela nabarmendu zuten: aurrera begira, neskek eta gazteek hurbileko erreferenteak behar dituztela azpimarratu gura izan zuten.

300 lagunek baino gehiagok parte hartu dute Bertokoak Berton egitasmoan

Euban, San Miguelen, Etxanon eta Boroan egiten diren jarduerak arrakasta handia dutela nabarmendu dute

A. M. ZORNOTZA

Eubako, San Migueleko, Etxanoko eta Boroako bizilagunek Bertokoak Berton egitasmoa babesten dutela nabarmendu du Zornotzako Udalak. Hain zuzen ere, iazko urritik hona 300 lagunek parte hartu dute udalak landa-eremuak dinamizatzeko bultzatzen duen ekimenean. "Hiru urteko ibilbidearen ondoren, parte hartzea etengabe hazten dabil. Bertokoak Berton Zornotzako Udalaren programa garrantzitsua bihurtu da, auzoak bizirik, dinamiko eta elkarlotuta mantentzeko konpro-

misoa berresten duelako", azaldu du udalak ohar baten bitartez. Gainera, ohar berean udalak azaldu du ekimenaren lauhileko berria martxan dela. "Maiatzera arte, jarduera praktiko eta sortzaileak izango dira Euba, San Miguel, Etxano eta Boroa auzoetan: hazi zakuen tailer lasaitzaile eta terapeutikoak, bertako produktuekin pasta ekologikoa prestatzea, ongizatea bultzatzen duten saio praktikoak, bingo jarduerak, mugikorrak argazki tailerrak, eta gyoza dastatzeak", gaineratu dute.



OSASUN gida.

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu **688 731 402** zenbakira

PODOLOGIA
PSE: 214/06

PODINARA
URRETA
JAINAGA

OINEN ZAINITZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

NATUROPATIA
ETA HOMEOPATIA

Aurora Julia

HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218

Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus

ODONTOLOGIA
PSE:177/26

DURANGO
Clinica dental • Hartz klinika

ODONTOLOGIA
INTEGRATIBOA

Ahotik lortu zure osasuna

Artekale, 37 DURANGO
Tel.: 94 604 14 76
gerencia@clinicadentaldurango.com
www.clinicadentaldurango.com

ODONTOLOGIA
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantza hartz klinika Durango

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordologia
Astelohenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Biskaiak
www.clinicadentalviteri.com

ODONTOLOGIA
PSE: 145/13

clinicadental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

(Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 • Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

OPTOMETRIA
PSE: 162/13

NAIA
ZABALA
AIZUMENDI
11507 xil. pk.

keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

• JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
• IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO
ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
• SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL
IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
• ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

PSIKOLOGIA

gure
Hezkuntza
zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen
diagnostikoa eta esku-hartzea,
diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 1D Durango

PSIKOLOGIA

gure
Psikologia

Helduak-nerabeak-haurrak

• Zure buruan konfiantza sendotzeko •
• Estresa kudeatzeko •
• Zure harremanak hobetzeko •

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62
Andra Mari, 16 1D Durango

FISIOTERAPIA
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

FISIOTERAPIA
PSE: 119/13

ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Salo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374



Ekimenean parte hartu zutenen familia argazkia. ELORRIOKO UDALA

Elorrioko Merkatarien Elkartek 25 urteko ibilbidea ospatu du Arriolan egindako galan

J.D. ELORRIO

Joan zen barikuan, Elorrioko Merkatarien Elkartek bere 25. urteurrena ospatu zuen Arriola Antzokian egindako gala berezi batez. Ekitaldiak azken urteetan herriko merkataritzak egindako ibilbidea gogoratzeko eta tokiko merkatariek Elorrioko bizitza ekonomiko eta sozialean

izan duten ekarpena aitortzeko balio izan zuen.

Hainbat belaunalditakoak

Bertaratutakoek hainbat momentu bereziz gozatu zuten. Besteak beste, elkartearen historiaren ibilbidea gogoratu zuten, eta urte hauetan guztietan elkarrekin lotura izan

duten bazkideek elkarrekin egoteko aukera izan zuten. Hainbat belaunalditako merkatariek batuta, galak erakutsi zuten transmisioa bere bidea egiten dabilela. Ekitaldi nagusia amaitzean, Arriolara bertaratutakoek giro lasaian jarraitu zuten ospakizunagaz, jai txiki bat eginda.

Elorrioko EAJk kiroldegiaren gabeziak eta akatsak zerrendatu ditu

A.M./J.D. ELORRIO

Elorrioko EAJk herriko kiroldegia "txarto" dagoela salatu du ohar baten bitartez. Alderdi jeltzalearen esanetan, EH Bilduren kudeaketa ereduak ez die erantzuten kiroldegiko beharrezkoenak. "Azpiegituren narriadura agerikoa da eta zuzenean eragiten dio zerbitzuaren kalitateari", salatu dute.

"Kontratututako enpresen ekarpena begiraleak eskaintzera mugatzen da, mantentze-lanen ardura berriro udalarena da eta ez dabil bere ardurak eraginkortasunez betetzen", esan dute. Gainera, jeltzaleek salatu dute aldageletako hainbat dutxa ez dabilela, gune batzuk zikin daudela, eta horietan "hatsa" dagoela.



Elorrioko kiroldegiko irudi bat.

Ines Bengoaren ipuin kontaketa saioa Mañarian, hilaren 26an



Ines Bengoa ipuin kontalaria.

J.D. MAÑARIA

Martxoaren 26an, 18:00etan, Ines Bengoa ipuin kontalaria 3tik 5 urtera arteko haurrentzat *Kontu kantari* ipuin kontaketa saioa egingo du Mañariko liburutegian.

Bengoak kantua eta musika ere baliatuko ditu ipuinak kontatzeko. Honela deskribatzen du bere saioa: "Txikiak zentzu guztiekin gozatzeko dute ipuinez, eta, horregaitik, kontatu, kantatu eta hitzen bitartez jolasten gara haiekin. Berbaz, soinu eta abestiz osaturiko ipuin saioa da hau, gurasoez lagundutako haurrentzat egindakoa."

Izurtzako Erdoitzako Ama elkarteak urteko batzarra egingo du martxoaren 22an

J.D. IZURTZA

Urtero, San Jose egunaren bueltan, Izurtzako Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak batzar orokorra egiten du. Aurtengo batzarra martxoaren 22ko domekan izango da, 13:00etan, erabilera anitzeko gelan. Iazko kontuak garbitu eta aurtengo aurrekontua adostuko dute. Horrez gainera, juntako kide berriak aukeratzea izango da mahai gainean egongo den beste gai bat. Azken urte bietan Julio Cuesta izan da elkarte presidentea.

Gaur egun 48 kide osatzen dute elkartea eta eurak daude batzarrera deituta. Batzarraren ondoren bazkaria egingo dute elkarteak plaza ondoan duen lokalean.

Udalak hainbat berrikuntza egin du lokal horretan. Besteak beste, barra txikitu egin dute lokaleko gunea handitzeko. Cuestak adierazi du "pozik"

daudela aldaketagaz, orain "ekimen gehiago egiteko lekua" dagoelako.

Eskulanak eta berbaldia

Esaterako, une honetan eskulanak egiteko tailerra martxan da jubilatuen lokalean. Lau astelehen iraute duen tailerra da —ordu bi saiko— eta as-

kotariko eskulanak egiten dituzte. Horrez gainera, martxoaren 24an 'Aurretiazko borondateak' izeneko berbaldia egongo da bertan. Zer dira aurretiazko borondateak? Zelan egin daitezke? Zertarako balio dute? Adituek galdera horiei eta gehiagori erantzunak diete adituek.



Batzarraren ondoren, jubilatuen lokalean bazkalduko dute.

Apatako igogailua geratuta martxoaren 26ra arte



Apatako igogailua.

J.D. ATXONDO

Atxondoko Udalak jakinarazi duenez, Apatako igogailu publikoa geratuta egongo da atzotik martxoaren 26ra arte. Hobekuntza lanak dira igogailua itxita izateko arrazoia. Bien bitartean, hiru sarbide alternatibo daude: ohiko sarrera, Euskalerria kaleko 3-4 zenbakitik; eskailerak erabiltuta Euskalerria 5-7 zenbakietatik; eta plazatik eskolara doan aldatsetik.

Iazko azaroan, udalak igogailu publikoari tarteko solairu bat egiteko lanak abiatu zituen Euskalerria kalean.



**Matrikulak
martxoaren
16tik 27ra**



Eman izena!

Tel. 94 681 00 50

www.durangojesuitak.org

Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE

MARTXOKO ZOZKETAK



Arriola Antzerkia
euskaraz
"Zerbait sartu zait begian"
(Imanol Epelde)
Martxoak 27



Zornotza Aretoa
Antzerkia euskaraz
R&J (La Dramática Errante)
Martxoak 27



BASA take away
jaketxeko KMO haragidun eta
ogi artisaudun haniburgesa eta
bi saltsadun patata razioa
opari. Ostinal eta larunbat
gauetan gozatzeko.



Xiberu taberna
(Zornotza) bi gosari bikoltz.



24.korrikako produktu
sorta.

**Anbotoren
lekukoa zuena
izango da**
Eraman nahi duzu?

**EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!**

24.korrika
**Euskara
gara**

Ortu publikoetan izena emateko aukera dago Abadiñon



Tornosolo landa eremuan daude partzelak.

Aritz Maldonado ABADIÑO

Iazko ekainean ortu publikoak martxan ipini zituzten Abadiñon, Tornosolo landa eremuan. Partzela batzuk libre geratu dira eta izena emateko epea zabalik dago horien ustiapenerako. Partzelak 50 metro koadro ingurukoak dira eta hilean 10 euro

ordaindu behar da. "Proiektu honek bizilagunei aukera ematen die kontsumo pertsonalerako barazkiak eta fruituak lortzeko. Horrez gainera, oso elementu garrantzitsua dira herri kohesiorako", azaldu du udalak. Interesa duten herritarrek martxoaren 20ra arte dute aukera eskaera egiteko.

Hasi da forma hartzen Abadiñon ezarriko duten zainketen ekosistema komunitatea

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Bizkaiko Foru Aldundiak eta udalak Abadiñon ezarriko duten zainketa-egoitza badabil forma hartzen. Herritarren iritzia jasotzeko asmoz, aste honetan bilera egin dute herritarrekin. "Komunitateak komunitatean oinarritutako zainketa eredua eraikitzea da asmoa, sortuko den ekipamendua herriko bizitzan integratzeko

eta komunitateagaz lotutako zainketa luzeen ekosistema eratzeko", azaldu dute erakunde biek.

Bestalde, ekimen honen bitartez gizarte-baliabide berria sortzea gura dutela jakinarazi dute, eta zainketa-sare komunitatea sendotu gura dutela, pertsonak erdigunean ipini eta inguruko gizarte-kohesioa bul-tzatzen duena.

Zainketa-egoitza komunitatearentzat zabalik egongo dela ere esan dute. Elkarbizitzako hiru unitate egongo dira bertan: mendekotasuna duten adineko pertsonentzako gunea, adimen-gaixotasuna dutenentzako gunea eta eguneko arreta zentro bat garapen kognitiboaren esparruko desgaitasuna dutenentzat. Aldundiak jakinarazi duenez, Abadiñoko egoitzak herritarrei "arreta integrala, pertsonalizatua eta komunitateagaz lotua" ematea da helburua.

Mallabian autobusa ipini gura dute Korrikaren hasierara joateko

M.Z. MALLABIA

Aurtengo Korrika Atharratzen (Zuberoa) hasiko da, martxoaren 19an, eta Mallabiko eta Ermuko Korrika batzordeak autobusa antolatzen dabilta hara joateko. Korrika batzordeak jakinarazi du gutxieneko plaza kopurua bete beharko litzatekeela zerbitzua eskaini ahal izateko, eta, horretarako, aurretiaz izena eman behar da ermua@korrika.eus helbidera idatzita. Idazteko azken eguna gaur da, barikua, martxoak 13.

Autobusa egonez gero, 8:45ean irtengo litzateke Mallabitik, eta gero Ermuan egingo luke geldialdia. Itzulera ordua 19:00etan izango litzateke.

Aurretiazko Borondateen tailerra egingo dute martxoan

M.Z. MALLABIA

Debabarrenako ESIaren Osasun Sare Komunitarioak Aurretiazko Borondateen dokumentuari buruzko tailerra antolatu du martxo honetarako. Saio bi egingo dituzte, bata martxoaren 18an eta bestea martxoaren 31n. 13:00etatik 15:00etara izango dira, Eibarko Ospitaleko ekitaldi aretoan. Ekimenaren helburua herritarrei dokumentu horren funtzioa, erabilera eta osatzeko era argi eta praktikoa ezagutaraztea da.

Mallabiko Udalak Eibarren egingo de ekimen horren garrantzia azpimarratu du eta tailerragaz bat egiteko deia egin die mallabitarrei.

Otxandioko lurrak hartzen dituen Kastillo parke eolikoak ez du ingurumen baimenik



2024an, Kastillo Bizirik Koordinadora aurkeztu zuteneko irudi bat.

Aitziber Basauri OTXANDIO
Eusko Jaurlaritzak Otxandioko, Ubideko eta Legutioko lurretan aurreikusitako Kastillo parke eolikoaren aurka egin du. Otsailean emandako ebazpenean, Energia Trantsizio eta Jasangarritasun Sailak arrazoitu egin du Plaury Energy enpresak

bultzaturiko proiektuak eta hari loturiko azpiegiturek ingurumenean izango duten inpaktua. Proiektuaren izapidetze prozesuan, Otxandioko Udalak eta hainbat herritarrek alegazioak aurkeztu zituzten; bertan, proiektuak ingurumenean eta lurraldean izan zitzakeen eraginei buruzko

kezkak azaldu zituzten. "Inposaturiko" parke eolikoa geldiarazteko helburuagaz, Kastillo Bizirik Koordinadora sortu zuten 2024an.

200 metroko haize errotak
Kastillo parke eolikoaren proiektuak 85x25 metroko oinarria zuten hormigoizko plataformak eta 200 metroko lau haize errota eraikitzea aurreikusten zuen, Otxandioko, Ubideko eta Legutioko askotariko subjektu sozio-politikoek bultzatutako ekimenak jakinarazi zuenez.

Plataformak 1.000 alegazio baino gehiago eta 800 sinaduratik gora batu zituen ekimenaren aurka. Koordinadorak salatu zuen Kastillo parke eolikoaren moduko proiektuek "gutxi batzuen interesei" erantzuten dietela, "energia berriztagarrietan espekulatzeko eta haiekin negozioa egiteko aukera ikusten dutelako", nabarmendu zuten ekimena aurkeztu zutenean.

Korrika txikia eta herri afaria Garain, Korrika nagusira batu aurretik

Ekaitz Herrera GARAI
Trumoitte elkarteak hainbat ekintza antolatu du Korrikari ongietorria egiteko. Martxoaren 28an egingo dituzte ekitaldiok, lasterketa erraldoiak eskualdea zeharkatu aurreko orduetan. 18:00etan, pankartak eta petoak margotzeko tailerra egingo dute, eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte, gero, Korrika txikian.

Ondoren, 21:00etan, herri afaria egingo dute Otea Loran elkartearen. Bertan afaldu gura dutenek izena eman beharko dute aldeztu aurretik, eta 10 euro ordaindu (ins-kripzioak martxoaren 26a baino lehen egin behar dira). Azkenik, behin indarrak hartuta, Berrizera jaitsiko dira Korrikan parte hartzeko. Trumoitte kilometro tarte bat erosi duela iragarri du.



Korrika txikia Garain, 2024an. TRUMOITTE

Donostiako Orfeoia kontzertua emango du, bihar, Olazarko frontoian

Ekaitz Herrera ZALDIBAR
Zaldibartarrek musika doinuekin amaituko dituzte Bitor Garitaonandiaren omenezko jardunaldiak, Donostiako Orfeoia kontzertuagaz. Ema-naldia Olazarko frontoian izango da, zapatuan, martxoak 14, 19:30ean. Udalak jakinarazi duenez, Jose Antonio Sainz Alfarak zuzenduko du abesba-

tza, eta Borja Rubiños izango da pianista. Orfeoia joko dituen piezen artean, entzute handiko abestiak daude: Mikel Laboaren eta Joxe Antonio Artzeren *Txoria txori*, Leonard Cohenen *Hallelujah*, Itoizen eta Juan Carlos Perezen *Lau teilatu*, Benito Lertxundiren *Baldorba*, Pablo Sorozabalaren *Maite*, John Lenonen *Imagine* eta Xabier

Leteren *Xalbadorren heriotzean*, besteak beste.

Donostiako Orfeoia Zaldibarren kontzertua ematea ez da kasualitatea, Bitor Garitaonandia zaldibartarrak berebiziko bultzada eman ziolako Gipuzkoako hiriburuko orfoiari, orain mende bat baino gehiago. Zaldibartarrak Garitaonandia oroitzeke ekitaldietan murgilduta ibili dira egunotan. Ipuin lehiaketako sari banaketa egin zuten joan zen barikuan, eta Euskaltzaindiak eta udalak bilera egin zuten zapatuan.

Arbola landaketa egingo dute Iurretako Laixiar zelaian, etzi

A.B. IURRETA
Iurretarren arbolak landatzeko hitzordua dute domekan, Laixiarrren. Maiztegi herri eskolako Guraso Elkarteak, Zaldai Mendi Taldeak eta Iurretako Kofradien Batzordeak antolatutako ekimena da, eta herritarrek parte hartzera deitu dituzte. Guztira, 120 arbola landatuko dituzte: gerezioak, gaztainondoak eta

otsalizarrak. Urtarrilean egin behar zuten landaketa, baina bertan behera utzi behar izan zuten eguraldiaren eraginez.

Kotxez joateko, Aita San Migel plazan egin dute elkartzeko hitzordua, 09:00etan. 10:00etan hasiko dira arbolak landatzen. Lanak amaituta, parte hartu dutenek luntxa izango dute Laixiarrren (euria eginez gero, San Markoko txokoan batuko dira). Bertaratu gura duenak helbide elektronikoko honetara idatzi dezake: laixiarzelai@gmail.com.

INSTITUTUA
DURANGO BHI

BATXILERGORAKO
AURREMATRIKULAZIO EPEA
Martxoaren 16tik-27ra

DBH - BATXILERGOA
OROKORRA
ARTEAK
• Arte plastikoak, irudia eta diseinua.
• Musika eta arte eszenikoak.

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

HEZIKETA ZIKLOAK
ERDI-MAILAKO ZIKLOA
• Natura Inguruneke gidari lanetako eta aisialdiko teknikaria.

GOI MAILAKO ZIKLOA
• Gizarte eta Kirol Irakaskuntzako eta Animazioko Goi-Mailako Teknikaria.

Lasterketa bat baino askoz gehiago

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Lilakrosa antolatu dute domekarako Durangon. Lasterketa bat baino askoz gehiago den probak Durangoko kaleak hartuko ditu martxoaren 15ean. Berdintasunaren aldeko proba Ezkurdin hasiko da, 12:00etan. Aurretik, 11:00etan hasita, kamisetak salduko dituzte irteeran bertan.



lazgo Lilakroseko Argazkia. IRATI OTADUI.

DURANGALDEA ASTEON

Sare irristagaitzak ipini dituzte Pinondon eta Intxaurrendon

DURANGO Durangoko Udalak Trek Nek izeneko sare plastikoa ipini du Pinondoko eta Intxaurrendoko oinezkoen pasabideetan. Helburua oinezkoen segurtasuna hobetzea da, udalak ohar batean zehaztutakoaren arabera. Orain arte, inprimazio eta pinturen bitartez zurraren gainean ipinitako soluzioek ez dituzte "espero ziren emaitzak eman".

Zenbait diru laguntzatarako deialdiak zabaltzen dituzte

ZORNITZA Familia zornotzarrek eskola materiala erosteko eta desgaitasuna duten adin txikikoen tratamenduetarako diru laguntzak eskatzeko aukera dute apirilaren 20ra eta 21era bitartean, hurrenez hurren. Kasu bietan, eskaerak Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) edo udalaren egoitza elektronikoaren bitartez egin ahal izango dira. Eskola materialerako laguntza jasotzeko, tokiko komertzio batean egindako erosketaren faktura aurkeztu beharko da.

Iurretako Lanbide Heziketako ikasle bi, SpainSkills jardunaldietan

IURRETA Iurretako Lanbide Heziketa zentroko Joseba E. eta Julen A. ikasleak Madrilen egin diren SpainSkills jardunaldietan izan ziren hiru egunez. ANBOTOk zuzenketa egin gura du joan zen asteko alean albisteak kaleratzerakoan Lanbide Heziketa barik beste ikasketen baten izena kaleratu zuelako.

1944ko kintoak bazkaritarako batu ziren joan zen zapatuan Durangon

DURANGO 1944ko kintoek bazkaria egin zuten zapatuan Durangon. Giro paregabean aritu ziren eta jai giroa izan zuten nagusi. Poteo batez eman zioten hasiera egunari, eta, ondoren, bazkaritarako batu ziren. Guztira, 14 lagun egon ziren.



GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa /
/ Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN

Etsaia beste bat da



JESICA RUIZ
PSE-EE

Martxoaren 8an berriro irten ginen kalera. Durangon, aurten nahiko jende batu ginen, izan daiteke mugimendu antifeminista baten goraldian gaudelako gaur egun, diskurtso erreakzionario eta misoginoetan adierazten dena. Narratiba horiek oinarritzko konkistak zalantzan jartzea, nahasmendua sortzea eta indarkeria matxistaren existentzia deslegitimatzea bilatzen dute.

Berdintasunaren defentsa ez da aukera bat, ezta ideologia bat ere: giza eskubide unibertsala da, aitortua eta babestua. Ozen eta garbi esaten dugu berdintasunik gabe ez dagoela erabateko demokraziarik, eta indarkeria matxista desagerrarazi gabe ez dagoela guztiontzako askatasunik.

Horren aurrean elkarturik egon behar dugu, berdin dio ordezkatzeko ditugun siglak, zein elkartekoak garen; jakina, gauza batzuetan ez gatoz bat, baina fronte komun batean elkartu behar dugu, gure etsaiak dira berriro isildu nahi gaituztenak, berdintasun-politikak ezabatu nahi dituztenak. Horretan guztian, mugimendu feministak, erakundeak eta legeak funtsezkoak dira.

Egon gaitezen batuta eta elkartuta, irmo lortutako eskubideak defendatzeko eta atzerapausorik gabe berdintasun erreala eraginkorrerantz aurrera egiten jarraitzeko. Argi izan behar dugu nor den etsaia.

anboto

ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902



Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.

Marketina

Defie Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibela.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



ABADIÑO



ATXONDO



BERRIZ



DURANGO



ELORRIO



GARAI



IURRETA



IZURTZA



MALLABIA



MANARIA



OTXANDIO



ZALDIBAR



ZORNITZA

Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua






SUDOKUA

LERROEI JARRAITU

Lerroen gainetik marraztu



MARGOLARITZA

"Gizarte legez, ahaztu egin zaigu sentitzea"

ESTHER JURADO MARGOLARIA

Asteburu honetan artista abadiñarraren lanak Ezkurdi aretoan ikusteko aukera dago; goizean zein arratsaldean bisitatu daiteke

Aritz Maldonado DURANGO

Durangaldeko Artisten Elkarteak Durangoko Ezkurdi aretoko ateak zabaldu dizkio Esther Jurado abadiñarrari bere lanak *Reencuentro*-n erakusteko. Juradok lehenengo bakarkako erakusketa du hau eta pozik dago bere lanak espazio honetan erakutsi ditzakeelako. Bere sorkuntza prozesua ez da ohikoa, ez baitu pintzelik erabiltzen, belakiak baino. Bere lanak barne intuizio eta bulkada emozionalen isla dira. Lan hori ikusteko gogo duenak martxoaren 15era arteko aukera du. Astelehenetik barikura 18:00etatik 20:00etara bisitatu daiteke erakusketa, eta asteburuan goizean eta arratsaldean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. ANBOTO aretoan bertan elkartu da bera-gaz, koadroak zintzilikatzen eta ateak zabaldu aurretik azken ikutuak ematen zebilela.

Azkenean martxan da zure lehenengo erakusketa. Zergaitik ipini diozu *Reencuentro* izena?

Berrogeita hamar bat pieza ekarri ditut, nahiz eta denak ezin izan ditudan zintzilikatu, lekuri ez dagoelako. Guztira, lauhun lamina baino gehiago ditut etxean, eta aukeraketa bat egin behar izan dut erakusketa honetarako. Dena dela, nahiko argi izan dut zein lan erakutsi gura nuen eta zein ez. Izenburuari dagokionez, nire ustez gizarte legez oso automatizatuta gaude, dena etiketatzen dugu, denak arrazionala izan behar du eta ardiek edo makinak legez jokatzeko dugu askotan, eta benetan garena ahazten zaigu. Erakusketa hau jendea-ri sentitzen uzteko gonbidapen bat da. Nire obren aurrean, segundo batzuetarako bada ere, norberak bere buruari zeozer sentitzeko baimena eman diezaiola gura dut. Badakit gerta-tu izan dela, eta horrela gura duenak horrela sentitu dezala gura dut. Batzuek, nire lanen aurrean ipini eta sekulako emozioa sentitu dute; inoiz negar ere egin du baten batek, koadroak barruan zeozer mugitu diolako.



Esther Jurado.

Zure sorkuntza prozesua ere ez da arrazionala. Orain hiru urte hasi zinen margotzen. Zer dela eta?

Niretzat hau ez da zuhaitz baten irudia hartu eta hori arrazionalki kopiatzea. Inoiz ere ez dut margotzen ikasi. Orain dela hiru bat urte, oso intuizio indartsua sentitu nuen. Niretzat nire espazioa den gelara joan, mihise bat hartu eta margotzen hasi nintzen, inolako planifikaziorik barik. Koloreak ere sentitu egiten ditut margotu aurretik. Uste dut kanal baten modukoa naizela, neure burua aske uzten dut sentitzen dudana adierazteko. Askotan 03:00ak arte egoten naiz margotzen; margotu egin behar dudala

sentitzen badut, aprobeztatu egiten dut eta hainbat lamina segidan egin ditzaket. Hurrengo egunean, beharbada, ez dut ezer margotuko. Konexio momentu horietan dozena bat lamina ere egin ditzaket jarraian. Gero, agian, lau egunean ezer ikutu barik egoten naiz. Batez ere, gauez margotzen dut, isiltasuna lagun.

Erabiltzen duzun teknikak asko harritu nau. Akrilikoa erabiltzen duzu, pintzelagaz barik belakiagaz. Ez dut inoiz ere pintzelik probatu. Niretzat belakia naturala da. Tamaina desberdinetako belaki txikiak erabiltzen ditut; batzuek zurezko makilaxo bat izaten dute. Tarteka

ikusitakoak izan ditut Interneten bideoak, tutorialak, ikasteko edo, baina ez dut gustuko horrela aritzea, eta neure senari kasu egiten jarraitzea erabaki nuen. Esan dudana moduan, koloreek eurek gidatzen naute sarritan. Urdina asko erabiltzen dut, ikaragarri gustatzen zait; eta baita urre kolorea ere, kontraste oso polita egiten du eta energia berezia ematen die lanei. Neure esperientziatik ikasi dut dena. Margotzerakoan, ez dut ezer pentsatzen edo erabakitzen. Irudi bat datorkit burura, eta belakiak hartu, koloreak sentitu eta margotzen hasten naiz. Ez dago besterik.

Koloreekin lotura handia daukat. Nire ustez, kolore bakoitzak bere energia propioa dauka, bere esangura. Batzuetan koloreek eurek erakartzen naute, lotuta baleude legez funtzionatzen dute niretzat.

Koadro eta laminez harago, orri markagailuak eta giltzakoak ere ekarri dituzu Ezkurdi aretora.

Bai. Intuizioari jaramon egiten diot, guztiz. Behin, orri markagailuak egitea bururatu zitzaidan. Eta neure buruari galdetu nion: 'Zergaitik ez?' Giltzakoekin berdin gertatu zitzaidan. Ez diot mugarik ipintzen neure buruari. Hostoen kontua ere berdin sortu zen: etxean dudana landare natural baten hosto bat hartu eta haren gainean margotzen hasi nintzen belakiagaz. Askomaite dut egiten dudana, ez politagoa edo itsusiagoa delako,

"Erakusketarako aukeraketa, nire lan guztia legez, sentitzen dudaren arabera da"

"Belakia erabiltzea oso naturala da niretzat; neure esperientziatik ikasi dut dena"

baizik eta sortzean sentitzen dudana guztiagaitik. Sarritan intuizioz lan egiten dut, esan dudana moduan. Sare sozialetan, adibidez, bideo bat ipini nuen. Oinekin margotzen agertzen naiz. Horrela egin behar nuela sentitu eta egin egin nuen; nire gelara joan, oinetakoak erantzi, aulkian jesarri, begiak itxi eta margotzen hasi nintzen. Lamina hartu nuenean ederra zela ikusi nuen. Jende askok esaten dit bideo hori ikustean asko hunkitzen dela.

Oraintsu Durangaldeko Artisten Elkartearen sartu zara. Zer dela eta? Abenduan sartu nintzen elkartean. Abadiñoko artisauekin eta inguruko azokekin hartu-eman izan dut. Bertako kide baten amak esan zidan sare sozialen bitartez jarraitzen ninduela, eta erakusketa bat egitera animatu ninduen. Elkartetik pasatzeko esan zidan, informazioa eskatzera. Hau dena nire lana erakusteko aukera bat da niretzat, eta elkarteari oso eskertuta nago. Egun haue-tan ere asko lagundu didate erakusketa muntatzeko, koadroak zintzilikatzeko... Jende zoragarria aurkitu dut hemen.

Urduri zaude jendearen erantzuna dela eta?

Kuriosoa da, baina ez nago baxerik urduri. Ingurukoek etengabe galdetzen didate ea urduri nagoen, nire lehenengo erakusketa delako eta jende asko etorriko delako. Baina ezetz esaten diet, benetan ez nagoelako urduri. Hori bai, ikaragarri emozionatuta nago. Niretzat kontua ez da 'zein polita den hau' edo 'zein zatarra den bestea'; jendea-ri nire sentipenak erakustea dut helburu, eta horrela eurek ere zeozer sentitzeko aukera izatea. Eta, jakina, norbaitek nire teknika edo lana gustuko ez baditu, hori ere zilegi da.

Etorkizunera begira, ez daukat ezer planifikatuta; egun egun aurrera. Beste erakusketa-ren bat egiteko aukera irteten bada, ondo. Beste leku batzuetan erakustea jendeagaz berriro elkartzeko aukera da.

MUSIKA

Bartolome Ertzilla musika eskolako zazpi ikasle EIO Txikirako aukeratu dituzte

Gazteek ekainaren 23tik 28ra bitartean parte hartuko dute musika topaketan

A. M. DURANGO

Otsailaren 28ko asteburuan egin-dako hautaprobak gaintitu eta gero, Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorioko zazpi ikaslek Euskadiko Ikasleen Orkestra Txikian parte hartzeko aukera izango dute. Hain zuzen ere, Irati Ruiz (biolina), Fabio Ruiz de Larrea (biola), Julia Goitia (biola), Irati Bengoetxea (biolontxelo), Amaia Sanz (biolontxelo), Martin Geira (tronboia) Valentin Alberdi (ordezko tronboia) ikasleek ekainaren 23tik 29ra bitartean egingo den topaketan parte hartuko dute. 9tik 14 urtera bitarteko musikari hauek Euskadiko Ikasleen Orkestra Txikiko kide izango dira egun horietan, eta bertan orkestra sinfoniko batean jotzeko aukera izango dute, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste hainbat musika ikaslegaz batera. Ane Legarretak zuzenduko du proiektua, eta berak gidatuko du topaketan zehar egingo duten lan artistikoa. Ekaineko egun horietan, ikasleek erreperitorio zabal bat landuko dute. Erreperitorioak J. Brahms, B. Bartok, Chaikovski eta J. Wi-



Zazpi ikaslek parte hartuko dute EIOTen.

lliams konpositoreen lanak batten ditu, besteak beste. Gazteek entsegu orokor bat egingo dute ekainaren 6an, eta, ondoren, orkestrak kontzertu bana eman-gu du Donostian (ekainaren 26an, Euskadiko Orkestrak Miramonen duen egoitzan), Gasteizen (ekainaren 27an, Kontserbatorioan) eta Bilbon (apirilaren 28an, Kontserbatorioan).

Durangoko Udalak zoriondu egin ditu hautatu dituzten ikasleak, "euren lanagaitik eta erakutsi duten dedikazioagaitik", eta baita musika proiektu

honetan ikastetxea ordezkatzegaitik ere. "Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorioak proiektu honetan duen presentzia nabarmena da azken urte hauetan, eta horrek agerian uzten ditu ikastetxeak duen musikarako prestakuntza eta ikasleen talentua eta dedikazioa", azaldu du Durangoko Udalak ohar baten bitartez. Euskadiko Ikasleen Orkestra Txiki proiektua Jaurilaritzaren Hezkuntza Sailak bultzaturiko ekimena da.



'Kolapsoa' antzezlan.

ANTZERKIA

Edozer saltzeko ahalmenaz hausnartzera gonbita, 'Kolapsoa'-n

A. M. ZORNOTZA

Jon Ander Urrestiren *Kolapsoa* antzezlan aularatuko dute gaur, hilak 13, Zornotza Aretoan. Maite Mugerza, Txubio Fernandez de Jauregi eta Urresti bera publizitate agentzia bateko kideak dira, edozer saltzeko kapazak. "Den-dena", diote antzerki konpainiako kideek. "Den-dena, baita behar ez duzuna ere. Batik bat, behar ez duzuna", gehitu dute. Azken errekadu batek, baina, ataka estuan ipiniko ditu: ezer gehiago ez erosteko gogoia saldu behar dute. Horrela, gaur egungo aro "turbokapitalista" honetako ekonomiaren hazkundearen metafora legez aurkezten dute antzezlan. "Askok kolap-

soaz hitz egitean sistema osoaren amaiera aipatzen dute. Guk, oster, fikzioa mugagabea eta moldakorra dela erantzuten dugu. Stocka etengabe berrizten dela, joera berriak etengabe agertzen direla. Agian ezingo dugu apokalipsia lehen lerrotik ikusi, baina irudimenaren eraikuntza ahul hau zabaldu dezakegu, eta haren zentzugabetasunaz barre egin", azaldu dute.

Kolapsoa martxoaren lehen estreinatuta zuten, Usurbileko Sutegin, eta Zornotzakoa birako bigarren emanaldia da. Urtea amaitu aurretik, beste hogeit bat emanaldi dituzte aurretik; besteak beste, apirilaren 9an, Atxondon.

GAI LIBREAN



MIREN ERDOIZA MUJIKAK
BEHARGINA

Oda bat udaberriari

Inausitako arbolak loratzen dabilta gurean. Arramak hostoz, lorez zein fruituz jantzita ikusi ditut aspal-dian. Mizpiren sasoia apirilean omen da. Udaberrian heltzen den lehenengo fruituetako bat dela ikasi dut. Batzuek "edertasunaren fruitua" deitzen diote; antza, dituen ezaugarri eta propietateei aitortza egin nahian.

Negua joan da, eta mizpirekin batera helduko zaigu epela Intxaurreko harrizko bankuetara. Kafea izotzarekin eskatuko dugu. Luzatuko zaizkigu marianitotan bainatutako domekak. Jantziko ditugu sandaliak, eta jantziko dugu txubaskeroa. Biak egun berean. Amestuko dugu Abadiñon. Lokartuko gara leihoak zabalik. Erosiko ditugu landare berriak. Jango dugu izozkia. Dutzako grifoak urdinerantz egingo du gorrirantz baino apur bat gehiago. Gal-

tzerdiak finagoak izango dira eta kamiseta ez dugu kuleroen azpitik jantziko. Lanetik bueltan eguzkiak lagunduko digu oraindik, eta Intxaurrendoko tirolina ez da bustita egongo. Doministikuka ibiliko da inor. Maiteminduta besteren bat. Bizikletako arroparen marka izango dute batzuek eta paparria erreko zaigu terrazan askori. Besapeak sarriago umel-

"Mizpirek nola, udaberriak gazitik duen haina gozotik daukala esango nuke"

duko zaizkigu eta sudur azpia sikatzen hasiko gara pronto.

Astebete falta da udaberrirako. Aste bi apirilerako. Aurten mizpirak probatuko ditut lehen aldiz. Kontatu didate gazi-gozaok direla. Mizpirek nola, udaberriak gazitik duen haina gozotik daukala esango nuke. Nahiaren eta ezinaren metafora bat. Eguraldi ona, baina oporrik ez. Egun epelak eta zaparradak. Dopamina eta antihistaminikoak. Nola dastatzen dira aurpegiko pekak? Eta siestak belartzan? Zein zapora du brisak itsasoari begira? Eta biserak begietan ematen digun atsedanak?

Gaziaren bandokook gozoari lekua egiteko sasoia da. Edertasunari gorazarre egitekoa. Mizpira gehiago eta kleenex gutxiago. Udaberri on denoi.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 13

- **DURANGO Truke Azoka**
Erabiltzen ez diren objektuei erabilera berri bat eman ahal izateko azoka. Andra Mariko elizpean, 16:30etik 19:00etara.
- **DURANGO Durango 'Piranesi. Erroma amestu'** Giovanni Battista Piranesi artista italiarraren hainbat lanen erakusketa. Arte eta Historia museoa, apirilaren 26ra arte.
- **DURANGO 'Reencuentro'** Esther Juradoren lanak. Ezkurdi Aretoa, martxoaren 15era arte.
- **DURANGO 'El Club del LP'** *Ziggy Stardust* (David Bowie) diskoaren entzuketa kolektiboa eta entzunaldia. Landako elkartegian, 19:00etan.
- **ELORRIO 'Orgullo de mujer'** Malvaloca konpainiak eskainitako antzezlan. Arriola antzokian, 20:00etan.
- **ELORRIO 'Filomena musugorri errege'** Ipuin kontaketa Maite Franco ipuin kontariaren eskutik (+4 urte). Liburutegian, 17:00etan.
- **GARAI Garai Dastatzeak** Garagardo dastatzea eta mokadua + kontzertu akustikoa. Fabrika ezagutzeko aukera ere egongo da. Izena emateko, garai kontserbak@gmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke. Plazak mugatuak dira.
- **IURRETA 'Descóseme las alas'** Rocío Martinek sortutako lana, Navarra Producciones konpainiagaz. Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.
- **ZALDIBAR 'Yung Urkiolamendi'** Jone Ertzillaren lanak. Xerra espazioan, maiatzaren 31ra bitartean.
- **ZALDIBAR '150 urte. Bittor Garitaonandia. Bizitza, obra, memoria'** Bittor Garitaonandiaren ibilbidea erakusten duen

- erakusketa. Liburutegi zaharrea, martxoaren 15era bitartean.
- **ZORNOTZA 'Kolapsoa'** Jon Ander Urrestik sorturiko antzezlan. Zornotza aretoa, 20:00etan.
 - **ZORNOTZA Koruen kontzertua** MMUK (Mungiako musika eskola) + Zik eta Kantalai (Zubiaur musika eskola). Larreako San Juan Batailatzaile elizan, 19:00etan.
 - **ZORNOTZA 'Emakume irakurleak'** Erakusketa, Zelaieta Zentroan. Martxoaren 27ra bitartean.

ZAPATUA 14

- **BERRIZ Sendabelar ibilbidea** Mentxu Amunategik gidatutako ibilbidea. Nagusien Etxetik abiatuta, 11:00etan.



ALEJANDRA AMERE

DURANGO Dantza *Zambra de la buena salvaje* dantza ikuskizuna indar, askatasun eta sustrai eztanda da, Isabel Vazquez eszena garaiakidearen sortzaile eta interpretatzaile erreferentzialak sorturikoa. San Agustin kulturgunean, martxoak 14, 19:00etan.

- **BERRIZ Femm Vocal Jazz & Band** Kontzertua. Berrizko Kultur Etxean, 19:00etan.
- **DURANGO Zine forum feminista** 'Adolescence' filmaren inguruan zine foruma. Genero joeratan eta ziberbiolentzia matxistan aditua den Estibaliz Linaresek gidatua. Zugaza zineman, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.
- **ELORRIO Elegante Eguna** Bazkari elegantea, Gaztetxean, 15:00etan. Ondoren, poteo elegantea. Etxeko DJ eleganteak, 20:00etan: Petardeo masibo, Tokero, Koibe remixa, Nausi, Igor Martinez B2B, Lamikiz eta Nisus & Sancho.
- **IURRETA Bizikleta irteera** Untzillara irteera, lurreta Txirrindulari elkarteak antolatuta. Lurretan, 09:00etan.
- **OTXANDIO Hankaz gora + Esatutu** Kontzertua. Gaztetxean, 22:00etan.
- **OTXANDIO Garagardo tailerra** Korrika kulturalaren eskutik garagardoa egiten

- ikasteko tailerra. Airatu elkarteak eta Otxandioko Udalak antolatuta. Arkotxe elkarteak, 09:30etik 13:30era.
- **ZALDIBAR Kontzertua** '150 urte. Bittor Garitonandia. Bizitza, obra, memoria' ekitaldi sorta itxiko du Donostiako Orfeoiaaren emanaldia. Olazar pilotalekuan, 19:30ean.
 - **ZORNOTZA Mississippi Queen.** Kontzertua. Eubako frontoiaaren alboko lokalean, 19:00etan.
 - **ZORNOTZA 'Amama irrifarren ondarea'** Umeentzako antzezlan (Eidada konpainia). Zornotza Aretoa, 17:30ean.

DOMEKA 15

- **ABADIÑO Durangaldeko Txistularien eguna.** Abadiñon, 12:30ean hasita.
- **BERRIZ 'Moko, Indalecio Bizkarrondo Bilintx'** Umeentzako antzerkia (Gorakada konpainia). Berrizko Kultur Etxean, 12:30ean.
- **DURANGO XIX. Lilakrosa** M8 dela-eta antolatutako martxa ibiltari eta herrikoia (kamiseten salmenta 11:00etan hasita). Ezkurdin, 12:00etan.
- **ELORRIO 'Alai familian'** Dantza ikuskizuna (Lasala konpainia). Arriola antzokian, 17:00etan.
- **IURRETA 'Zuhaitz landaketa'** lurretako kofradien batzordeak, Maiztegi guraso elkarteak eta Zaldai mendi taldeak antolatuta. Laixiar zelaian, 10:00etan. Plazan egin dute hitzordua, 09:00etan (kotxez joateko).
- **IURRETA Bizikleta irteera** Artxandara irteera, lurreta Txirrindulari elkarteak antolatuta. Lurretan, 09:00etan.
- **MALLABIA Emakumeen osasun eskolak** Kontzejuzarrean, 12:30ean.

EGUZTENA 18

- **DURANGO Palestinari buruzko berbaldia** Taher Ali militante palestinarrek Palestinari buruzko berbaldia

emango du. Otamotzena auzogunean, 19:00etan.

BARIKUA 20

- **ABADIÑO Autodefentsa feminista tailerra.** Txanporta kultur etxean, 16:30ean.
- **MALLABIA 'Euskal Herriko Emakumezkoen Gomazko Paleta Elite txapelketako finala'** Herriko frontoian, 19:00etan.
- **ZORNOTZA 'You have an inner world and so what?'** Dantza ikuskizuna (Larrua proiektuaren La Senior konpainia). Zornotza Aretoa, 20:00etan.

ZAPATUA 21

- **ABADIÑO Dantza egonaldia.** Aiko dantza taldeak 20. urteurrena ospatzeko dantza egonaldiak egingo ditu, martxoaren 21ean eta 22an. Interesdunek 622 589 632 telefono zenbakian hartu dezakete lekua. Urkiola Hotelean.
- **ABADIÑO 'Perfectos desconocidos'.** Pablo Genovesek zuzendutako antzezlan. Errota kultur etxean, 19:00etan.
- **DURANGO 'Oihu bat Palestinara'** Elkartasun kontzertua. Ahmed & Nur, Anari, Belako, Bengo, Borla, Chulería, Joder!, Dena, Ezezez, Eire, La Furia, Gailu, Hofe, Ibil Bedi, J Martina, Ke Lepo, Kiliki, Lukiek, Malakias, Maruxak, Merina Gris, Mursego, Naxker, Nize, Ødei, Olatz Salvador, Silitia, Mateo eta Zikuta & Calie taldeek eskainiko dute emanaldia. Honako hauek ere parte hartuko dute: Maialen Lujanbiok, Nerea Ibarzabalek, Antton Telleriak, Asier K-k, Amets Arzallusek, Txaber Altubek eta Nondik Inora Abiatuk (Nabiga Kolektiboa). Landako Gunean, 11:00etan hasita.
- **MALLABIA Frontenis txapelketa mistoa** Herriko frontoian, 09:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Tres adioses
Domeka 15: 19:00.

HILTEGIXE GAZTETXEA

Maspalomas
Barikua 13: 19:30.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Torrente presidente
Barikua 13: 18:00, 20:30.
Zapatua 14: 16:30, 19:00, 21:30.
Domeka 15: 17:00, 19:30.
Astelehena 16: 18:00, 20:15.
Martitzena 17: 18:00, 20:15.
Eguaztena 18: 19:00.
Águilas de El Cairo
Barikua 13: 18:00, 20:30.
Zapatua 14: 19:00, 21:30.
Domeka 15: 19:30.
Astelehena 16: 17:45, 20:15.
Martitzena 17: 17:45, 20:15.
Eguazten 18: 19:00.
Epic. Elvis Prestley in concert
Barikua 13: 20:30.
Zapatua 14: 20:30.
Domeka 15: 20:00.
Astelehena 16: 20:15.
Martitzena 17: 20:15.
Flores para Antonio
Barikua 13: 18:00.
Zapatua 14: 18:30.
Domeka 15: 18:00.
Astelehena 16: 18:00.
Martitzena 17: 18:00.
Ninja Laukiduna. Sorr3ra
Zapatua 14: 16:30.
Domeka 15: 17:00.
La Gioconda
Eguaztena 18: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

La tarta del presidente
Zapatua 14: 20:00.
Domeka 15: 20:00.
Astelehena 16: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Sorry Baby
Domeka 15: 20:00.
Astelehena 16: 20:15.
Super Wings
Domeka 15: 17:00.



Ana Ruiz, Lauaxeta Ikastolako futbol zelaian; hantxe entrenatzen dira.

FUTBOLA

"Fisikoki eta mentalki ondo bazaude, adina zenbaki bat baino ez da"

ANA RUIZ FERNANDEZ

HAZI BERRIAK FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

51 urte gaz, Hazi Berriak eta Amorebieta beterranoen taldeetan dabil. "Gustuko lekuan aldatsik ez", dio

J.D. ZORNOTZA

Abiadura apur bat galdu du urteekin, baina futbolagazko pasioak bere horretan jarraitzen du. Ana Ruiz (Zornotza, 1974) Bizkaiko futbolari beterranoekin osatutako Hazi Berriak taldeko

futbolaria da eta Amorebieta taldean ere badabil.

Zein da Hazi Berriak taldearen helburua?

Adin batetik gora emakumeen futboleko dagoen hutsunea bete gura du. Ibilbide baten ondorioa



Hazi Berriak taldeko jokalariek, partidu batean. HAZI BERRIAK

da. Bere sasoiaren, Bea Abad taldekidearen ekimenez Amorebieta futbol klubean beterranoen taldea sortu zen. Edonork parte hartu zezakeen, futboleko esperientzia izan zein ez. Kirola egiten jarraitzeko eta esperientzia bizitzeko aukera eskaini gura zuten emakumei. Baina heldu zen momentu bat proiektu horrek beste urrats bat eskatzen zuena. Hazi Berriak pauso berri horren emaitza da. Futboleko esperientzia handiagoa duten jokalariek batzen ditu. Batzuk Athletice eta Real Sociedaden lehenengo taldeetan ibilitakoak dira. Baina helburua ez da aldatu. Hutsunea bat bete gura du eta adin batetik aurrerako emakumei futboleko aritzeko aukera eskaini.

Joan zen asteburuan bigarren fasea jokatu zenuen. Zelan joan zen?

Lau partidutik hiru irabazi ditugu eta oso pozik gaude. Gainera, Madrilgo, Valladolideko, Murtziako, Cadizeko eta toki gehiagotako jendea ezagutu dugu eta bizipen ederrekin bueltatu gara. Lehiakorrak gara, jakina, baina bizipenei garrantzi handia ematen diegu.

Hirugarren fasea, azkena, etxean jokatu duzue, Zornotzan.

Maiatzaren 8tik 10erako asteburuan izango da. Ilusio handia egiten digun hitzordua da, txapelduna etxean erabakiko delako. Dena bikain irten dadin ahaleginduko gara eta mezu bat gizarteratzeko baliatuko dugu: adina ez dela oztopo kiroleko jarraitzeko. Eskerrak eman gura dizkiet Zornotzako merkatari txikiei euren laguntzagaitik; baita herriko enpresei eta udalari ere. Denen ekarpena garrantzitsua da ekimen hau antolatzeke zein urteko gastuei aurre egiteko.

Zu hasi zinetetik hona, asko aldatu da emakumeen futbola?

Ikaragarri aldatu da. Nik 1989an debutatu nuen. Orduan lurrezko zelaian jokatzen genuen, inor ere ez zen ikustera etortzen eta zorotzat hartzen gintuzten. Ez zegoen ez emakumeen Athletic talderik eta Lehenengo Mailarik. Harrezkero pauso asko eman dela ikustea pozgarria da, baina oraindino badago zer hobetu.

Gaur egun defentsan jokatzen duzu, baina urte haietan aurrelaria zinen.

Ezker hegaleko aurrelaria nintzen, azkarra, ez zegoen harapatuko ninduenik! Gogoan dut urte batean pitxitxia izan nintzela. 13 urte gaz hasi nintzen Amorebieta klubean. Jakina, orain 51 urte gaz atzerago jokatzen dut. Lehen euren bila joaten nintzen eta orain "etorri, ea pasatzeko gai zareten" esaten diet (barrez).

Beterranoen taldean beterranoetarikoa zara.

Bai. 35 urtetik gora aritu daiteke beterranoen taldean. 35etik 51ra aldea dago! Ni taldearen eta entrenatzailearen zerbitzura nago, behar duten guztian laguntzeko. Esperientzia bizi eta zeozertxo jokatzen badut, pozik nago. Hala ere, zelaian nagoenean adina ahaztu egiten dut eta esango nuke gainerakoei ere berdina gertatzen zaiela. Zelaian gaudenean futbolariak gara eta adin kontuak alde batera uzten ditugu.

"Ligako azken fasea Zornotzan jokatu da, maiatzaren 8tik 10erako asteburuan"

51 urte gaz oraindino ikasten jarraitzen duzu?

Athletice ibilitako Ainhoa Antruejo, Ainhoa Gaztelu eta Helena Gonzalez taldean dabil; Real Sociedad taldean jokatutako Ainara Herrero ere gugaz dabil. Sekulako maila duten jokalariek dira: kalitatea, kokapena, egiten dituzten mugimenduak... Umetatik ikasi dute eta igartzen da. Nire sasoiaren ez zegoen horrelakorik, askoz ere sinpleago jokatzen genuen. Futbolaz hainbeste dakiten futbolari inguratuta egotea gozamen da niretzat. Beste hainbeste esan dezaket Jon Gallego entrenatzaileari buruz ere; entrenatzaile titulua dauka eta Arratia taldea entrenatzen ibili zen. Asko daki. Entrenamendu guztiak kalitatezkoak dira eta lan hori zelaian islatzen da gero.

Hazi Berriak eta Amorebieta taldean zabilta, bietan. Zelan eusten diozu erritmoari?

Egiten dudana asko gustatzen zaidalako eusten diot. Kairen eta Nekaneren ama naiz, urteak aurrera doaz eta inoiz gorputzak "bajatu ezazu erritmoa apur bat" esan lezake, baina kontua da asko gozatzen dudala egiten dudana. Badakizu, gustuko lekuan aldatsik ez. Gainera, lehen esan dudana moduan, oraindino gauza berriak ikasten nabil eta ikusten dut ikasitakoa zelaian aplikatzean emaitza hobeak lortzen ditudala. Asegarria da niretzat. Gorputzari kasu egiteko, talde bietako entrenamenduak txandakatzen ditut. Fisikoki ondo nago, beti egin dut kirola, eta, alde horretatik, ez dut arazorik. Fisikoki eta mentalki ondo bazaude, adina zenbaki bat baino ez da. Gainera, taldean dugun giro onak jarraitzea animatzen nau.



Elorrio futbol taldeko jokalaria, aurtengo partidu batean. ELORRIO FT

FUTBOLA

Elorrio futbol taldea, maila segurtatu eta gero Kopako sailkapenaren bila

Klubaren historian lehenengoz, Hirugarren RFEF Mailan jokatzeko arren jaisteko arriskutik kanpora dago

J.D. ELORRIO

Aurtengoa ez da edozelako denboraldia Elorrio futbol klubeko emakumeen talde nagusiarentzat. Iazko igoyeraren ondoren, lehenengoz dabilta Hirugarren RFEF Mailan. Azken jardunaldira arte mailari eusteko borrokan murgilduta egotea litzateke normala, baina liga amaitzeko lau partidu falta direnean helburua beteta dago: matematikoki salbu daude. Beraz, azken txanpara begira, gorago dute ipinita arreta eta Euskal Kopara sailkatzen ahaleginduko dira. Horretarako,

lehenengo zortziren artean geratu behar dute. Guztia kontuan hartuta, Gontzal Arana entrenatzaileak ez du zalantzarik. "Oso denboraldi ona izaten ari da", esan du.

Elorriok irabazi egin zituen Ligako lehenengo hiru partiduak, eurretari bi luzapenean. Gerora, ezin izan diote emaitza bolada horri eutsi, eta, zelanbait esanda, urak bere bidera etorri dira. Egoera hura "ez zela erreala" uste du Aranak. "Taldea solidoa dugu, baina esperientzia falta zaio maila honetan", argi-

tu du. Une honetan bederatzi garren kokatuta daude. Ligari aurre egiteko, hainbat jokalaria berri ekarri dute: Ane Mendoza eta Estibaliz Macarulla Bizkerre taldeak, Malen Txopitea Athleticetik, Maria Briones eta Ane Urrutia futbolera bueltatu dira, eta Oihane Bengoa ere taldera bueltatu da.

Larruskain, golegile

Itsasne Larruskain golegile dabil aurtengo ere. Berdin dio Euskal Ligan ala Hirugarren RFEF Mailan aritu, 33 urteko aurrelari abadiñarraren golerako senak bere horretan jarraitzen du. Une honetan mailako hirugarren golegile nagusia da, hamazazpi partidutan bederatzi gol sartuta. Taldearentzat zoritxarrez, hurrengo partiduetan ez du jokatu, besoko lesio batengatik.

JOKALDIA



DANI NUÑEZ

KICKBOXING ETA BOXEOA

Ilusioz eta proiektu handiz betetako urtea

Aurrekoetan azpimarratu izan dut kirolariak hezten eta trebatzen egiten dugun lana. Kirol hau hezkuntza-tresna izan dadin lan egiten dugu, eta kasu askotan, praktikatzeko dutenentzat benetako sendagai bihurtzen da. Gainera, inklusioa sustatzen dugu, desgaitasun desberdinak dituzten pertsonen lekua eginez. Urrezko amaiera gisa, iazko boxeoko egokituaren lehenengo jaialdia antolatzen lagundu genuen, kirolari askori atea irekiz. Lehiaketa arloan, klubean hazi diren ikasleek emaitza garrantzitsuak lortu dituzte iazko urtean zehar: hiru lehen postu Euskal Herriko kickboxing rankingean, 2025eko denboraldiko klub onena, ranking orokorreko klub onena eta 2025eko Euskadiko Kickboxing Txapelketako klub onena. Lehiaketa taldearen hazkunde eta bilakaeraren adibide dira Aitor Romero garaitarra eta Dani Calvo durangarra. Azken honek debut profesio-

"Emakumeen lizentzia gehien dugun kluba gara eta emakumeen kickboxing ikastaro bi antolatuko ditugu Elorrioren"

"Hazkundearen adibide dira Aitor Romero eta Dani Calvo. K1 profesionalean debutatu du azken honek"

nala egin zuen orain aste gutxi Klen, amateurretan ibilbide bikaina egin ondoren.

Emakumeen kirola sustatzea da gure beste lan ildoetako bat. Emakumezkoen lizentzia gehien dugun kluba gara. Ildo horretatik, emakumeentzako kickboxing ikastaro bi antolatuko ditugu Elorrioren.

Hona iristea ez da erraza izan. Ia hamar urte igaro dira Indar Xsport sortu zenetik; hamarkada bat lan etengabea eta kirol honi eskainitako dedikazio osoan. Ahaztu gabe Maisu Laureano Larak eskualdean egindako ibilbide eta lan nekaezina: 40 urte baino gehiago klaseak ematen, belaunaldiak hezten eta balioak tatarri barruan zein kanpoan ereiten.

Aurtengo klubarentzat oso garrantzitsuak izango diren proiektu eta ekimen berriak datoz, laster iragarriko ditugunak. Egon adi!



Helena Barrenetxea, iazko txapelketan. JAI ALAI

ZESTA-PUNTA

Barrenetxea eta Lejardi Euskotren Winter Serieseko finalaren bila

J.D. DURANGO

Datorren astelehenean, 19:00etan, Euskotren Winter Series txapelketako bigarren finalerdiak jokatuko dituzte Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Bertan, Helena Barrenetxea durangarra finalerako sailkatzen ahaleginduko da, Arai Lejardi-gaz bikotea osatuta. Biak iaz irabazitako txapelaren defentsan irtengo dira. Barrenetxeak eta Lejardik txapelketako lehenengo partidua izango dute. Aurrerari izango dituzten Ihart Arakistain eta Maia Goikoetxea, ostera, final-laurdenak gaildituta heldu dira finalaurrekora. Orain aste bi jokatu partidu hartan hiru setetan menderatu

zituzten Maite Ortiz de Mendibil eta Oaia Otaño. Gizonetan, Olharan-Zabala eta Urreisti-Lekerika bikoteek neurtuko dituzte indarrak, martxoaren 23ko finalera sailkatzeko helburuagaz.

Mugartegi-Watkins, finalean

Finaleko lehenengo protagonistak joan zen astelehenean erabaki ziren. Emakumeetan, Erika Mugartegi eta Frida Watkinsek hiru setetan menderatu zituzten Elaia Gogenola eta Eneritz Lizardi. Gizonetan, Aritz Erkiaga eta Eraman enpresagaz debutatu zuen Gorka Mugartegi 'Atain' sailkatu ziren finalera, Ludovic Laducheren eta Mikel Mancisidorren aurkako partidua irabazita.



EH Bildu PUBLIERREPORTAJEA

Garai nahasiak bizi ditugu. EH Bilduk nola ikusten du gaur egungo egoera?

Garai nahasiak dira, bai. Munduko ordena hankaz gora dago eta orain arte, modu prekarioan bada ere, mantendu den nazioarteko zuzenbidea erabat hautsi da. Guk argi dugu herrien burujabetzan dagoela etorkizuna. Herri txiki bat gara eta gure gaitasun guztiak beharko ditugu. EH Bildu Euskal Herriaren-tzat etorkizun desiragarria eraikitzeke tresna eraginkorra dela uste dugu.

Faxismoaren gorakadaz asko hitz egin da azkenaldian. Zein iritzi duzu?

Kezkaz bizi dut. Hainbat borroka askatzailetan parte hartu dut nire bizitzan zehar eta irabazi ditugun eskubideak arriskuan ikusteak amorratu egiten nau. Gainera, ezin dugu ahaztu Durangoen 31ko bonbardaketa faxismoaren adibide gordinenetako bat da. Uste dut memoria historikoa garrantzitsua dela horrelako basakeriak ez errepikatzeke. Eremu honetan Gerediaga eta

ELKARRIZKETA

EH Bildu etorkizun desiragarriak eraikitzeke tresna

IMA GARRASTATXU URBANEJA | EH BILDU | DURANGOKO ZINEGOTZIA ETA EUSKADIKO LEGEBILTZARKIDEA

Durango 1936 elkarteek egiten duten lana goraipatu nahi dut. **Inguruan nabaritzen duzu balio atzerakoein gorakada hori?**

Ez dakit zer esan. Diskurtso batzuetan bai, eta tendentzia kezkarri batzuk ikusten ditut, baina kontrakoa ere bai. Joan den igandean, adibidez, emakumeon egunean, milaka pertsona atera ginen kalera feminismoa aldarrikatzera. Indar erakustaldi hauek esperantzarako bidea irekitzen dute. Uste dut Euskal Herrian badagoela gaitasuna eskubideetan aurrera egiteko. Datorren astean ere Euskal Herriko gehiengo sindikalak grebara deitu du gu-

txieneko soldata igotzearen alde. Horrelako adibideek esperantza ematen dute. Gizarte justuago bat eraikitzen jarraitzea da indar atzerakoiei aurre egiteko modurik onena, eta, zorionez, herri honetan asko gara bide horretan lanean gabiltzanak.

"Gizarte justuago bat eraikitzen jarraitzea da indar atzerakoiei aurre egiteko modu onena"

Durangora etorrita, eta udalera zehazki, aurrekontuak onartzeko prozesua pasatu berri da. Hainbat ekarpen egin dituzue. Nola joan da?

Une honetan, zoritxarrez, ez gaude gobernuan eta *de facto* EAJ, PSE eta PPren artean gobernatzen dute. Beraien artean adosten dute dena, aurrekontuak ere bai. Hala ere, ez diogu gure ardura politikoari izkin egiten. Botorik gehin jaso zuen indar politikoa izan zen gurea eta aurrekontu hauetan ere hainbat proposamen egin ditugu.

Lau ardatz estrategikoren arabera antolatu ditugu udalak egin behar dituen apustuak: etxebizitza, zaintza, trantsizio

ekosoziala eta kirola. Alor baikoitzean aurrekontuetarako ekarpen konkretuak aurkeztu ditugu, guztiak egingarriak.

Etxebizitzaren inguruan egin dituzue ekarpen handienak.

Etxebizitza da durangarren kezka nagusietako bat, eta normala da. 2.099 pertsona daude Etxebiden izena emanda, alokairu eskaintzarik ia ez dago eta dagoena oso garestia da. Bitartean, 1.405 etxe huts daude Durangoen. Parke publikoa handitzea eta etxebizitza hutsak mobilizatzea dira gakoak. Parke publikoa handitzeko, 2.000.000 -ko partida proposatu dugu aurrekontuetan. Udalaren egoera ekonomikoa

ona da eta tamainako inbertsioa egin daiteke. Bestetik, etxe hutsak mobilizatzeko, udalak paper aktiboa izan behar du eta etxe jabeekin prozesu bat abiatu beraien etxebizitzak alokairu babestuan ateratzeko. Prozesu honen emaitzak beste udalerrri batzuetan ikusi ahal izan ditugu; Azpeitian eta Bilbon, adibidez, eta gure proposamenarekin Durangon 300 etxe huts mobilizatzeko gaitasuna izango genuke. Tresnak badaude, borondatea falta da.

Prentsa ohar batean, "etxebizitza plan bat" abiatuko dutela esan du Udal Gobernuak.

Urteak daramatzate etxebizitzaren harira hitz politikak esaten, argazkiak ateratzen. Aipatu duzun ohar horretan bertan ez dute ia neurri konkreturik mahai gainean jartzen. EH Bilduk 10 neurri konkretu proposatu zituen, hemen eta orain martxan jartzeko, baina oraingoz udalaren partetik ez dugu borondate politikorik ikusten. PSEk Jaurlaritzaren gain uzten du ardura guztia eta EAJk ez du borondaterik hona ekarri gaituzten politikak aldatzeko. Etxebizitzaren gaian ere, nahiago dute PPrekin adostu EH Bildurekin baino. Guk proposamenak egiten eta fokua etxebizitza eskubidean jartzen jarraituko dugu.

Durangoko Udalak atxilotutako pertsonen jatorriaren datua eman-go duela zabaldu zen orain egun batzuk eta ika-mika piztu da. Zer gertatu da?

Delituak egiten dituzten pertsonen jatorriari buruzko datuak emateko irizpidea jaso dute EAJtik. Honek dakarren guztia erekin. Guk argi dugu datu hau emateak arrisku nabarmenak dakartzala elkarbizitzarako, eta horrelako erabakiek kolektibo zaurgarrien seinalamendua, bazterkeria eta xenofobia hauspotzen dituztela. EAJ eta PSEren artean desadostasunak izan dituzte baina PP pozik egongo da. Durangoko udalean bizikidetzeta eta segurtasuna lantzeko mahai bat osatu zen, baina ez dugu aukerarik izan gai hau lantzeko. Erabaki honen berri prentsan izan dugu. **Badaude gai batzuk azken urteetan eztabaidaren erdigunean egon direnak, trenaren lurren kontua adibidez, PERI Ferrocarril bezala eza-gutzen duguna. Nola dago gaur egun?**

Honen inguruan ere gobernuak informazio gutxi eman du orain



arte. Aurreko legegintzaldian EH Bilduren gobernuak egindako lana bertan behera utzi dute. Berriz ere zerotik abiatu dute bidea eta honek atzerapen handia ekarri du. Aurreko legegin-

tzaldian dorreen proiektua baztertu genuen parke handi bat egiteko, galdeketa jasotako mandatu demokratikoari bide emanez. Orain berriz ere kezka sortu da etxeen altueraren eta kokapenaren inguruan. 12 pisuko altuerako eraikinak egin nahi dituzte, eta berdegunea irentsiko duen osasungintzara bideratutako eraikin handi bat.

Errespetuz diogu, baina uste dugu beste seriotasun batekin jardun behar dela Durangoren etorkizuna baldintzatuko duten erabakiekin. Tren estazioaren proiektuarekin irakaspenak atera zituztelakoan geunden, baina, berriz ere, zerbitzuetan baino gehiago eraikinetan jartzen dute arreta. Kezkatuta gaude atzera-bueltarik ez duten erabakiak hartu daitezkeelako, Durangoko erdigunea konde-

natuko dutenak. Garantzitsua izango da, nekeza den arren, berriz ere erabaki hauek hartzerako orduan zabalduko diren prozesu parte hartzaileetan inplikatzeta.

"Une honetan zoritxarrez ez gaude gobernuan eta de facto EAJ, PSE eta PPren artean gobernatzen dute"

"Gure proposamenarekin Durangon 300 etxe huts mobilizatzeko gaitasuna izango genuke"

"Plateruena berrituko da, baina jatorrian izan zituen helburu eta balioak mantenduko ditu?"

"Beti bezala prest nago ekarpena egiten jarraitzeko eta nire onena emateko, baliagarria naizen tokian"

Eta Plateruena?

Hau ere behar baino gehiago luzatzen ari da. Proiektu bat badago eraikina berritzeko. Ados gaude eraikina berriztearekin, eta denborak azkartzen saiatuko gara ahal bezainbeste. Gero kudeaketan egongo da gakoa. Bide bat jarri genuen martxan Plateruenak euskara eta kultura bultzatzeko espazio izaten segi dezan. Baina bide horrek ez du jarraipenik izan gobernu honen partetik eta gaur egun eraikin huts bat da. Eraikina berrituko da, hori ziur, baina kontua da jatorrian izan zituen helburu eta balioak mantentzeko apustua egingo den edo ez.

Eta bukatzeko, zu nola zaude? Une honetan Parlamentuan eta Durangoko Udalean zaude. Aurrera begira, non irudikatzen duzu zeure burua?

Gogotsu nago, egia esan. Azken urteetan gero eta proiektu sendagoa dugula uste dut. Hori nabaritzen dut, bai lanean eta baita jendeak gudan jartzen duen konfiantzan ere. Gainera, nire inguruan gaitasun handiko jende asko dago, konpromiso handiz ari dena, eta horrek ere indarra ematen du egunerokoan. Politikan lan kolektibo horrek ematen dio benetako zentzua egiten dugunari.

Pertsonalki gustura nago lanean, bai Gasteizen eta baita Durangon ere. Bi eremu oso desberdin dira, baina aldi berean osagarriak. Parlamentuan ikuspegi zabalago batetik lan egiteko aukera daukat, herri osoari eragiten dioten gaiak lantzeko; eta Durangon, berriz, gertutasun handiagoz bizi dut egunerokoa, jendearekin harreman zuzenean. Niretzat aberasgarria da bi espazio horiek uztartzea.

Hala ere, gurea proiektu kolektiboa da, eta aurrera begira ere hala izango da. Denon artean erabaki beharko dugu bakoitzak zein ardura hartuko dituen eta nola jarraitu bide hau eraikitzen. Oraindik ez gara horretaz hitz egiten hasi, badago denbora horretarako.

Nik, oraingoz, lan egiteko gogoz jarraitzen dut. Beti bezala prest nago ekarpena egiten jarraitzeko eta nire onena emateko, baliagarria naizen tokian. Azken finean, proiektuek aurrera egitea da garrantzitsua, eta jendearentzat baliagarria izatea. Horrek motibatzen nau.

GUARDIAKO BOTIKAK	
MARTXOAK 13, BARIKUA	
09:00-09:00	
Bazan, Uribarri 5 - Durango	
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
MARTXOAK 14, ZAPATUA	
09:00-09:00	
De Diego, Intxaurreondo 22. - Durango	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
MARTXOAK 15, DOMEKA	
09:00-09:00	
Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
MARTXOAK 16, ASTELEHENA	
09:00-09:00	
Mugica, Andra Maria 9 - Durango	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
MARTXOAK 17, MARTITZENA	
09:00-09:00	
Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
MARTXOAK 18, EGUAZTENA	
09:00-09:00	
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
MARTXOAK 19, EGUENA	
09:00-09:00	
Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaitez Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.



ABADIÑO
Mikel Filgueira
Zorionak, Filgueira!
Txoritxo batek esan digu aurten urrutu samar harrapatu zaituela urtebetetzeak! Non eta lemur artean! Besarkada bat zure kuadrillaren partez!

GOZATU
GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 401 400
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia





Zorionak Urko (1055.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

OROIGARRIA

Anboto eskelak:

ESKELAK JARTZEKO:
946 816 558 edo anboto@anboto.org

Modulo bateko Oroigarria edo Esker ona Anboto Paperean edo webgunean: **75 €** / Anboto kideendako **65 €**

Bi modulotako Oroigarria edo Esker ona Anboto Paperean eta webgunean: **115 €** / Anboto kideendako **105 €**

DIBA

KOOPERATIBA

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

IBARRETXE
KULTUR
ETXEAN

ANTZERKIA
BULTZATUZ
2026

Apirilak 17
19:00

Abdukzioa,
ke barbaridad!
Arrapaladan

Helduentzat







Durangaldeko
Okm gida

Zabaldu zure negozioa lau haizeetara

*Durangaldeko OKm gida
erakusleiko ezin hobea duzu
eskualdeko merkataritza
eta zerbitzuetan.*

*Jarri gurekin harremanetan konpromiso
barik 688 731 402 telefonoan*

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

www.anboto.org/gida



Urrezko kaiola



MARTA CALVO
LARRALDE

Beste bizitza batean aberatsa izan nintzen. Luxuzko etxe batean bizi nintzen. Atea zabaltzen zidan atezainak nire izena zekien eta egunero-egunero agurtzen ninduen, egun ona izan! Eraikinak gimnasioa zuen eta kirola egin nahi nuenean hara joaten nintzen. Aisialdirako espazioak zituen eta lagunekin arratsaldea ematen nuen bertan. Igerilekurik ez nuen eta eguzkia hartu nahi izanez gero hotelera joan behar nuen.

Ederto bizi nintzela pentsatuko duzue, baina urrezko kaiola batean bizi nintzen. Iluntzean ez nuen aukerarik kalera bakarrik ateratzeko, beldurrezko mila istorio kontatzen zizkidaten mehatxu modura. Irtenez gero, zerbait gertatuz gero, akabo, nire errua zatekeen. Bakarrik ateratzea ere! Egunez bai, baina korrika egiteko prest, zapatila erosoekin.

Bizitza hura atzean utzi nuen. Paisaia berdeak arnasteko aukera berreskuratu nuen, kalean bakarrik, lasai eta astiro ibiltzeko ohitura zaharra, hori bai urrea.

Poztasunak gutxi iraun zidan, baina; inguruan urrezko kaio-latxoak eraikitzen hasi ziren, igerileku, gimnasio, jolas-gela eta hesiekin batera.

Luxuzko etxe eta bizimodu guztiek dute horma bat, hesi bat. Babestu beharrekoa barruan egoten dela sinetsarazten digute, baina ez dago askatasun kaiolarik.

"Bioi gustatzen zaigu ondo jatea eta horrek sukaldaritzagazko zaletasuna piztu digu"

AITOR ARKARAZO ECHABURU ETA JOHN PLAZA BADIOLA BOLETUS AL GUSTO

Aitziber Basauri DURANGALDEA

Aitor Arkarazok (Abadiño, 2000) eta John Plazak (Durango, 2000) ogibidea ez ezik sukaldaritzagazko zaletasuna ere partekatzen dute. Biak ingeniariak dira eta orain urtebete *Boletus al gusto* sortu zuten, esperientzia gastronomikoak partekatzeko proiektua (@boletus_al_gusto).

Zelan jaio zen 'Boletus al Gusto'?

Aitor Arkarazo: Bioi gustatzen zaigu jatea, ondo jatea. Horrek gaztetatik kozinarako zaletasuna piztu digula uste dut. Lagunarteko zein oporretako planetan askotan egokitu digute sukaldeko lana. Eta orain uda bi, Portugalen, kozinatzen geundela bideoak sortzea eta sareetan zabaltzea bururatu zitzaigun.

John Plaza: Kuadrillakoentzat hanburgesak prestatzen hasi ginen, gero 16 lagunentzat risottoa egin genuen... *Boletus al Gusto* gure esperientzia gastronomikoak sareetan zabaltzeko eta partekatzeko proiektua da, errezetak edo jatetxeren batean probatu ditugun platerak erakusteko baliatzen dugu. **Zein da zuen helburua?**

J.P.: Ondo pasatzea. Errezetak partekatu eta kozinatzen ikasten jarraitu gura dugu, asko disfrutatzen dugulako. Kozinatutakoa probatzen dugun uea da onena. Biok elkarregaz egoteko eta egunaz berba egiteko aprobetxatzen dugu. Edonork egiteko moduko platerak erakusten ditugu, ez dute zailtasun handirik.



Aitor Arkarazo eta John Plazak taberna batzuekin zenbait elkarlan egin dituzte.

A.A.: Bai, ez daukagu helburu finkorik. Normalean, egunetan batzen gara kozinatzeko, pintxo-potera joan baino lehenago. Neure burua errezetak lantzerantz eta egunerokoan egingo ez nituzkeen platerak prestatzera behartzeko modu bat da, gero gure jarraitzaileei erakusteko. **Non ikasi duzue kozinatzen?** **A.A.:** Neure kabuz ikasi dut. Bideoak ikusita, errezetak probatuta... halantxik sortu zitzaidan zaletasuna. Etiketikanpo bizi izan nintzenean, Bartzelonan (Herrialde Katalanak),



asko ikasi nuen. Badut lehen-gusu bat apur bat eredu izan dudana beti, eta hari ere gustatzen zaio ondo jatea, batera eta bestera ibiltzea...

J.P.: Etxean oso eredu onak izan ditut. Gurasoek eta aita-amamek asko kozinatu dute beti. Aitagaz plater klasikoagoak egiten ikasi dut; amagaz internazionalagoak, Kanadan bizitakoak da eta. Biekin asko disfrutatzen dut.

Ingeniaritza kontzeptuak ondo egokitzen dira sukaldaritzan?

A.A.: Bai, igual ingeniaritza kimikoaren kasuan. Baina gure ingeniaritza arloek zerikusi gutxi dute sukaldaritzagaz.

J.P.: Ingeniari legez oso zehatzak eta espezifikoak izan behar dugu. Kozinatzerakoan, osteraz, ez gara horren zorrotzak. Neurriak egokitu egin ditzakegu eta aukera gehiago dugu inprobisatzeko eta platerak nahierara prestatzeko. **Beraz, ondo uztartzen dira.**

J.P.: Bai. Ingenieritza gure ogibidea da eta gure denbora librean sukaldean aritzen gara, ondo pasatzeko asmoagaz.

A.A.: Ondo pasatzeko eta ondo jateko. Sukaldaritza eguneroko errutinatik irteten eta deskonektatzeko era bat da, terapia moduko bat. Ederra izaten da etxera heldu eta ordu erditxo bat hartzea biharamunekin tuperra prestatzeko. Jaterakoan ederto eskertzen dugu hori.

Zelan ikusten duzue etorkizuna?

J.P.: Orain arte legez jarraitu gura genuke.

A.A.: Durangoko Gure Kabya tabernako 500 pintxo egin genituen pintxo-pote baterako, eta Ai Ama berria zabaltu zenean ere ibili ginen, Sushi Galery-kokin batera. Esperientzia politak izan dira eta ondo legoke horrelako elkarlan berriak sortzea, pauso bat aurrera egitea.

Motzean

Ez nioke ezetz esango...

J.P.: Amaren lasagnari.

A.A.: Italiar baten pasta carbonarari.

Plan bat proposatuko diguzue?

J.P.: Irukon bazkaria, jaki japoniarra eta euskalduna uztartuta.

A.A.: Aizkorri igo ondoren, San Adrian bentan babak bazkaltzea.



SAN ROKE BARRIA II

Eraikin berria bizi-kalitate berarekin Durangon.

2 eta 3 logelako 47 etxebizitza berri, San Roke Barria II. Sukaldea guztiz hornitua eta armairuak gela bakoitzean.



GARAJEA



TRASTELEKUA



GIMNASIOA



RELAX GUNEA

946 46 20 41 **sukia.com**

SALMENTA BULEGOA: Astxiki kalea, 1. Durango

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa